

# Kontzeju

www.oiñotzi.eus



Berbia Oñotzi



@BerbiaOñotzi



berbiainoa




Oñotzi Irratib

Oñotiko Udal aldizkaria | 2017ko Apirila | 271. zenbakia



DELIK



## ARANTZAZUKO ATERPETXEA

apirilaren 10ean zabalduko ditu ateak Gandiaga eraikinean


# 56 LAGUNENTZAKO ATERPETXEA egokitu dute Gandiaga Topagunean



Gaua pasatzeko 56 ohe,  
literadunak, eta gosari  
zerbitzua eskainiko ditu

Apirilaren 10ean zabalduko ditu atea Arantzazu Gaur Fundazioak (Frantziskotarrak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Oñatiko Udala, Kutxa eta MCC) Gandiaga eraikinean egokitu duen aterpetxeak. Gandiaga Topagunearen eskuinaldeko kuboan dago aterpetxea (goiko argazkiak erakusten duen moduan) eta pilotalekuen gunetik dauka sarrera. Ia 500 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin, 56 lagunentzako lo-lekua eskaintzen du, 6 logelatan banatuta, denak literadunak. Dutzak, sukaldea eta jangela-egongela eder bat ere baditu. Joseba Longartek kudeatuko du aterpetxea, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren babesarekin.

Kontzeju | 2 | peñik



JOSEBA LONGARTE / Aterpetxeko arduraduna

## “Batez ere umeak erakarri nahi ditugu Arantzazura”

Jatorriz mendararra, baina azken 18 urteetan Arantzazuko Zelai Zabal etxean bizi den Joseba Longartek kudeatuko du aterpetxea. Bi urterako kontratua sinatu du Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioarekin, beste bi urtez luzatu ahal izango dena.

Hiru bezero mota espero dituela azaldu digu Longartek. Alde batetik, erromesak; 2020. urtean beteko dira 500 urte San Iñazio Loiola eta Manresa arteko erromes bidea egin zuenetik, eta horrek jende asko erakarriko du *Inaziotar Bidea* egitera. Eta bestetik, ikastetxeak eta publiko orokorra (familiak, haurrak...) espero dugu. “Gure desioa da umeak etortzea, eta ikas dezatela txiki-txikitatik Arantzazu maitatzen, guk ikasi genuen moduan, eta senti dezatela beraien bizitzako parte dela Arantzazu”.

Lo egiteko lekua eta gosari zerbitzua eskainiko ditu aterpetxeak. Sukaldean hozkailu bat eta bi mikrouhin-labe egongo dira, bezeroek erabili ahal izateko, “baina gure asmoa da bazkariak eta afariak egiteko Arantzazuko beste ostatuetara bideratzea bezeroak”. Aterpetxea urte osoan zehar egongo da zabalik, urtarrilean izan ezik.

### TARIFAK

#### > PUBLIKO OROKORRARENTZAT

	Erromesak	Adin txikikoak	Nagusiak
Lo egitea	8,80 €	15,60 €	17,60 €
Gosaria	4,40 €	4,40 €	4,40 €
Guztira	13,20 €	20 €	22 €

#### > TALDE HANDIENTZAKO TARIFA MURRIZTUA

Lo egitea	13,20 €
Gosaria	4,40 €
Guztira	17,60 €

#### > ESKAINTZA BEREZIA IKASTETXEENTZAT

Lo egitea + gosaria	16 €	Bazkariak eta afariak auzoko
Pentsio osoa	32 €	jatetxe batean egiteko aukera

Informazioa eta erreserbak: 656 743 148 / 943 780 500 /  
arantzazuaterpetxea@gipuzkoamendizmendi.net



**ATERPERAKO SARRERA.** Pilotalekuen gunetik egongo da aterpetxerako sarrera



**SUKALDEA.** Gosari zerbitzua bakarrik eskainiko da aterpetxean. Dena den, hozkailu bat eta bi mikrouhin labe egongo dira sukaldean, bezeroek erabili ahal izateko. Bazkariak eta afariak Arantzazuko beste ostatuetan egiteko aukera eskainiko du aterpetxeak



**JANGELA-EGONGELA.** Aterpetxera sartu eta 105 m<sup>2</sup>-ko jangela-egongela eder bat aurkituko dugu. Bost mahai-ilara egongo dira bertan, desmuntagarriak (edizioa ixterakoan mahaiak jartzea falta zen oraindik).



**BAINU GELAK.** Gizonezko eta emakumezkoentzako bainugela bana dago (hiruna dutxa eta komunekin), eta egokitutako bainugela bat ere bai



**6 LOGELA.** 56 ohe ditu Arantzazuko aterpeak, sei logelatan banatuta: 12 oheko lau, eta 4 oheko bi, denak literadunak.



# ARANTZAZUKO PARKETXEAK

## aire berrituekin zabaldu ditu ateak



Aizkorri-Aratz natur parkearen balio natural, kultural eta izpiritualak ezagutzeko aukera ematen du parketxeak, bertako erakusketa bisitatuze, edo ibilaldiak eginez parke naturalean barrena



Arantzazuko Parketxeak etapa berri bati ekin zion martxoaren 4an. Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak 'Artelatzen Ingurumen Zerbitzuak' enpresari esleitu dio parketxeak arreta eta dinamizazio zerbitzua. Enpresa honek Aralar eta Aiako Harria natur parkeetako interpretazio zentroak ere kudeatzen ditu, eta esperientzia handia du ingurumenarekin lotutako heziketa programak lantzen eta aisialdiko jarduerak sustatzen.

Arantzazuko Parketxea Gandiaga-II eraikinean dago, eta 500m<sup>2</sup>-ko azalera du bi solairutan banatuta. Aizkorri-Aratz natur parkeak bere baitan dituen balio natural eta kulturalak (paisaia karstikoa, artzantza, basoa, lurpeko mundua...) balioan jartzea da parketxearen helburua, ezagutzaren bidez errespetatzen eta maitatzen ikasteko. Horretarako parkearen maketa erraldoia, baso baten errekreazioa, pantaila handiko proiektzioak eta soinu-efektuak aurkituko ditugu bertan, besteak beste.

Orain arteko lan ildoari jarraituz, asteburuetan ekintza bereziak antolatuko ditu parketxeak (narrastiak, anfiboak edo xaguxarrak ikusteko irteerak, mendi ibilaldiak...), eta ikastetxei zuzendutako hezkuntza programa berezia ere prestatu nahi dute, ahalik eta ikas-talde gehien erakartzeko asmoz.

### ARANTZAZUKO PARKETXEA

**ORDUTEGIA** (ekainerarte. Uztaitetik aurrera ordutegi berria) Asteazkenetik igandera zabalik: 10:00-14:00. (Aste Santuko eta Pazko Asteko egun guztietan egongo da zabalik)

**PREZIOA:**

- Bisita auto-gidatua: Helduak 1€ / Haurrak (5-12 urte) 0,5€
- Bisita gidatua: Helduak 2€ / Haurrak (5-12 urte) 1,5€

**INFORMAZIOA:** 943782894 / [www.parketxesarea.org](http://www.parketxesarea.org)



**ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

**ETXETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK**  
PERSIANAK, LENDAK, LUB FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



**DI SEINIGTZAILE ETA MONTATZMILA**  
SERRALDEAK, KOMMANK eta ASKEKZ GELUKO  
OLAKUA 12 B 4 esk. - 20600 ERABI - GIPUZKOA  
**695 78 91 04 - 943 04 47 77**

# ASTE SANTUKO ETA PAZKO ASTEKO

## PROGRAMA BEREZIA

### PARKETXEAN ETA ATERPETXEAN



APIRILAK 15, larunbata



### ‘Gaztagintzaren sekretuak’

**GOMIZTEGIKO ARTZAIN ESKOLAN**

Parketxetik abiatuta, Gomiztegira joango dira ibilbide irisgarrian zehar geldialdi ezberdinak eginez, ingurunearekin zerikusia duten gaien inguruko azalepenak emateko. Gero, Gomiztegiako Artzain Eskolako instalazioak ezagutzeko aukera izango dute bisitariak. Gazta nola egiten den ikasi eta artzai txakurren erakustaldia ikusi ondoren, gazta mota ezberdinak dastatzu borobilduko da irteera. Hiru ordu, guztira, goizeko 10etan hasita. **Prezioa: 8€ helduek / 5€ haurrek (3-10 urte)**

APIRILAK 18, asteartea



### ‘Fenologia: lurrari kasu eginez’

**PELLO ZABALAREKIN**

Fenologiari buruzko azalpenak emango ditu Pello Zabalak. Natura ulertzeko gure arbasoek zituzten ohiturak eta jakintza ezagutzeko ibilaldi gidatua egingo da parketxe inguruetan. Naturaren ezagutza eta harenganako errespetuzko balioak sustatzea da helburua. Klimak eta urtaro aldaketek naturan duten eragina, loratzeak, lehen intsektuak agerpena, hegazti migratzaileak, atsotitzak eta erretrauak...aztertuko da. Bukaeran, parketxea bisitatzeko aukera egongo da. **Prezioa: 5€**

APIRILAK 19, asteazkena



### ‘Hegaztien behaketa’

**MIKEL OLANOREKIN**

Batez ere helduei zuzenduta. Mikel Olano adituaren eskutik hegazti desberdinen eta, batez ere, sai arreen inguruko solasaldia eta behaketa. Hegazti harrigarri hauen ohiturak, naturan betetzen duten funtzioa eta, azken batean, euren bizimodua azalduko da. Parketxeko eta Gandiaga Topaguneko terrazatik egingo da behaketa. Prismatikoak edo teleskopioa eramatea gomendatzen da. Bi ordu eta erdiko saioa, goizeko 10:30etan hasita. **Prezioa: 5€.**

APIRILAK 21, ostirala



### ‘KALAKAN’-en kontzertu akustikoa

Aste Santuko eta Pazko asteko programa berezi honi amaiera ezin hobea emateko, kontzertu akustiko berezia eskainiko du KALAKAN Iparraldeko hirukoteak Gandiaga topagunean. Giro goxoa eta berezia sortu nahi da eta, beraz, plaza mugatuak izango dira. Goiko hiru jardueretako batean parte hartu dutenentzat edota Arantzazuko aterpetxean gutxienez gau bat igaro dutenentzat doan izango da, eta beraiek izango dute lehenetsia. Ordu eta erdiko emanaldia izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita.

fontanería y calefacción

**BELOKI**

- > Iturgintzako material salmenta
- > Komun eta sukaldeetako erreformak
- > Rzuzejoen salmenta

- > Kalefazioa eta aire girotua
- > Diseinua, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

etxebizitza osatzeko  
behar duzun guztia

MANU EGAÑA TXOPITEA / **Kirolbet** enpresako pertsonal eta antolakuntza zuzendaria

## “Kirol apustuekin ez da inor aberasten. Kirola emozio pittin bat gehiagorekin bizitzeko modu bat besterik ez da”

Kirol apustuen munduak izugarritzko iraultza bizi izan du azken urteotan. Duela hamar urte jarri ziren apustuak egiteko lehenengo makinak tabernetan, baina benetako iraultza Internet bidez etorri da, modu esponentzian ugaritu baitira kirol-apustu etxeak sarean. Euskadin hiru dira lizentzia duten kirol-apustu etxeak. Horietako bat da Kirolbet, Eibarren egoitza duen enpresa euskalduna, eta bertan dihardu Manu Egaña oñatiarrak. Berak lagundu digu kirol apustuen mundua hobeto ezagutzen.

### Zer da Kirolbet? Noiz eta nola sortzen da?

Euskal Herrian beti egon da apustuetarako zaletasun eta tradizio handia. Eta, horrela, 2004an, kirol mundutik eta apusuten mundutik zetorren pertsona talde batek *Tele-apustuak, Promotora de Juegos y Apuestas S.A.* enpresa sortu zuen (*Kiroljokoa* markarekin), apustuen mundua eta teknologia uztartuz.

Hurrengo urtean, 2005ean, Jaurlaritzak arautu egin zuen kirol apustuen sektorea, eta Euskadin eman zituen hiru lizentzietako bat eskuratu zuen Kirolbet-ek. Lehiaketara aurkeztu ziren zortzi enpresetan txikiena zen Kirolbet, baina proiektu sendoa aurkeztu zuen, arlo teknologikoan, batez ere.

Hortik aurrera, apustuak egiteko makinak jartzen hasi ginen taberna eta lokaletan.

Lehenengo apustu ofiziala 2008ko abuztuan egin zen. Era honetako sistema batean (taberna batean jarritako makina baten bidez) munduan egiten zen lehenengo apustua zen.

**Momentu hartan 10 langile zituen Kirolbet-ek, eta gaur egun 270. Hazkunde izugarria izan duzue.**

Baliabide gutxirekin hasi zen Kirolbet. Hogeit hamar makina jarri genituen hasieran, eta horiek ematen zutenarekin joan gara berriak erosten, poliki poliki. Gaur egun, estatua mailan 15 lokal eta 4.000 makina baino gehiago daude gure sistema erabiltzen dutenak.

Produktu eta zerbitzu ona eta hurbilekoa eskainiz, bezeroen konfiantza irabazi dugu.

Euskadin ez ezik, gaur egun ia Espainia osoan dago Kirolbet.



**2008an egin ziren lehenengo kirol apustuak tabernetako makinaren bidez. Era honetako sistema batean munduan egiten ziren lehenengo apustuak ziren. Euskadin hiru enpresek dute lizentzia: *Kirolbet, Retabet* eta *Codere***



Zorionez, autonomia ezberdina poliki poliki joan dira kirol apustuen mundua arautzen, eta horrek aukera eman digu enpresa sendotzeko eta lehiaketa horietara aurkeztu ahal izateko.

2010ean Nafarroan sartu ginen, 2013an Galizian, gero Kantabrian, Errioxan, Kanariar irletan... Batzuetan Kirolbet markarekin gaude presente, eta beste komunitate batzuetan aldiz, *partner* edo bazkide teknologiko bezala gaude. Hau da, guk *hardware*-a (makinak) eta *software*-a (aplikazio mobilak, webgunea...) saltzen diegu eta beraiek kometzializatzen dute. Adibidez, Valentziara bazoaz, geureak bezalako makinak ikusiko dituzu, baina *Juegging* markarekin. Valentzian ez ezik, Gaztela Mantxan, Madrilen, Murtzian, Kanarrietan... ere ba-gaude partner teknologiko gisa. Zenbait lekutan kompetentzia egiten diote Kirolbet markari, baina ez zaigu inporta. Guretzat inportantea da sistema teknologiko potentea eta seguru edukitzea, horrek emango baitigu negozio eredu hau munduan zabaltzeko aukera. Valentzian edo Murtzian egin duguna, zergatik ez Mexikon edo Argentinan?

Zergatik ez?

Ari gara. 2016-2018ko Plan

Estrategikoan Latinamerikako atea jotzeko asmoa dugu. Azken batean, kirol apustuen sektorea arautzeko Euskadin onartu zen eredu eraman nahi dugu, eta uste dut hango agintariak ere hasi direla ikusten, interesgarria izango litzatekeela sektorea erregularizatzea.

**Bistan da, beraz, teknologiak garrantzia handia daukala zuen enpresan.**

Bai, noski. Enpresaren egoitza Eibarren dago, baina Donostian I+D unitatea daukagu, 35 langilerekin. *Software* enpresa txiki bat da.

Sektore hau oso konplexua da. Kompetentzia izugarria dago, batez ere Interneten, eta lo gelditzen bazara... Produktu eta zerbitzu berriak sortzen ibili behar duzu eten barik. Teknologia berriak eta kirol mundua gustuko dutenentzat oso erakargarria da mundu hau.

**Non egiten dira apustu gehien gaur egun: makina fisikoetan ala Internet bidez?**

Gure kasuan, makinetan egiten dira oraindik apustu gehiago. Gure artean pisu handia du apustu 'sozialak', taberna giroan lagun artean egiten denak; lagunaren arteko 'pike'txoak, zeinek dakien gehiago...

**Jokatzen den euro bakoitzeko %85-90 banatzen da saritan. Kirolbet sistemaren bidez 500 milioi euro jokatzen dira urtean.**

Egia da, gero eta gehiago jokatzen dela on line, batez ere telefono bidez, baina, jakina, Interneten munduko kompetentzia guztia daukazu.

Dena den, gaur egun dena binkulatuta dago. Adibidez, Kirolbet txartela ateratzen baduzu gure makinetako batean, gero txartel hori mugikorrarekin binkulatu ahal duzu, eta horrekin on line jokatu.

**Erregistratuta egon behar da apustuak egiteko?**

Internet bidez apustuak egiteko bai, baina taberna edo sala bateko makina batean jokatzeke ez.

(Hurrengo orrira)



**Gero eta apustu gehiago egiten dira internetez, batez ere mugikor bidez, baina gure kasuan makinetan egiten dira oraindik apustu gehien**

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)

Jalone San Miguel Ugarte



**MAPFRE**  
OÑATI

Makinetan txartela eska dezakezu, nahi baduzu, nahi duzun saldoarekin, eta gero apustuen jarraipena egin dezakezu txartelaren bidez, edo *on line* jokatu, txartela mugikorrarekin binkulatuz gero.

### Inolako mugarik ba al dago apustuak egiteko?

Apustu bakoitzeko, gehienez, 100 euro joka daitezke. Eta, bestalde, adin muga dago; adin txikikoek debekatuta dute apustuak egitea, eta horretan zorrotzak izan behar dugu. Tabernariak badakite, eta, bestalde, Internetez apustuak egiteko identifikatu egin behar zara.

### Zein kirolek sortzen du apustu gehien?

Futbolak, tenisak eta saskibaloiak mugitzen dute bolumen handiena. Pilota eta txirrindularitza ere asko jarraitzen dira. Txirrindularitzako apustuetan Kirolbet da erreferente nagusia. Golfak ere jarraitzaile asko ditu, Jon Rahm dela eta.

### Zenbat diru mugitzen da?

Gure sistemak urtean 500 milioi inguru kudeatzen du apustuetan. Jokatutakoaren %85-90 artean saritan itzultzen da.

### Zeren arabera finkatzen dira apustuetako sariak?

Alde batetik, sistemak berak ezartzen ditu, algoritmo batzuk aplikatuz eta sistemaren oreka bilatuz. Baina, horrez gain, gure artekariak kontuan hartzen dituzte azken orduko gorabeherak eta beraien eza-gutza. Adibidez, *Lebron James* lesionatzen bada NBAko partidu baten atarian, apustuak aldatu egin behar dira. Horregatik, 25 laguneko artekari talde bat dugu lanean goizeko 7etatik hurrengo goizalderarte, NBAko azken kanasta sartu arte.

‘Pelotazo’rik eman al daiteke kirol apustuen bidez?



Oñatin Artxubi eta Otamendi tabernetan daude Kirolbeteko makinak

## Jokatu bai, baina erantzukizunez

Kirolbet Taldearen barruan, Gizarte Erantzukizunerako Fundazioko buru da Manu Egaña, eta, alde horretatik, ludopatia kasuei aurre egiteko lanean dihardu. “Badakigu, guk eskaintzen dugun produktu honek, portzentaia oso txikietan bada ere, zenbait pertsonengan arazoak sor ditzakeela. Eta gure nahia da arazo hori ahalik eta gehien murriztea, batez ere prebentzio lana eginez”. Ildo horretan, aplikazio bat garatu dute, test txiki batekin, arazo posibleak detektatzeko. “Laguntza emateko telefono bat ere badaukagu Kirolbet-eko webgunean eta txartelean; norbaitek arazoren bat detektatzen badu bere inguruan eta telefono horretara deitzen badu, guk protokoloa aktibatzen dugu, eta bideratu egiten dugu kasua, laguntza zerbitzuen berri emanez”.

Euskadin eta Nafarroan dauden Ludopatien Laguntzarako Elkarteekin biltzen da Manu hiru hilean behin, eta arazo honi aurre egiteko bideak eta materiala lantzen dute elkarrekin.

Errege-kopako finala Alavesek irabaziko duela apustu eginez gero, kopuru polita irabaz dezakezu (10€ jokatuta, 5.000€ irabazi). Baina, normalean ez. Hau ez da loteria. Hemen ez da inor aberasten. Hau da, azken batean, kirola bizitzeko beste modu bat, emozio pittin batekin, lagunekin apustuak eginez... Batzutan irabazi egingo duzu afari bat egiteko lain, beste batzuetan galdu... Ondo pasatzea da helburua.

Gure helburua da produktu jasangarri bat egitea, luzerako

**Apustu bakoitzeko 100 euro joka daitezke, gehienez. Adin txikikoek debekatuta dute apustuak egitea**

izango dena. Gure nahia da jende askok egitea apustuak, baina kopuru txikiak.

**Hemen ere bankak irabaziko du beti, ezta?**

Ez beti. Bartzelonak *Paris Saint Germain*-i 6-1 irabazi zion partiduan adibidez, diru asko galdu genuen. Eta Sergio Ramesek azken minutuetan sartutako golek ere eman digute disgustoren bat. Baina, bai, luzera begira normalean estatistikak betetzen dira. ■



Restaurante  
**Echeverria Jatetxea**

*60 urtetik gora zuekin*

120 pertsonarendako janlekua

Eguneko menua 10€

Larunbat eta igande eguerdiak 13€

Larunbat gauak 13€ edo 18€

Taldeentzako erreserbak

Plater konbinatuak, errazioak...



Kale Barria 15 • Tel. 943 78 04 60 • [restaurante.echeverria@hotmail.es](mailto:restaurante.echeverria@hotmail.es) •



Restaurante Echeverria Jatetxea

*MATRIKULAZIO EPEA : Maiatzean izango da 2tik 12ra, IRAILTIK AURRERA HASTEKO*



*Txiki-Txoko  
Onatiko Haurreskola*



*0-2 URTEKO*

*HAURRENTZAT MAIATZAK 2  
ASTEARTEA ATE IREKIAK*

*17:30etatik - 19:30ra*

**OLAKUA 19**  
**Telf.: 943716405**



# ‘Cuerdas’, Un viaje emocional

MAIATZAK 2,  
SANTA ANA  
ARETOA 19:00



» Bi Goya sari irabazitako **Pedro Solis** zinemagileak hitzaldia emango du Oñatin, Trauti elkarteak gonbidatuta

» Animazio-film bat nola egiten den erakutsiko du, eta 260 sari jaso dituen **Cuerdas** bezalako pelikula pertsonala zergatik egin zuen eta transmititzen dituen baloreez hitz egingo du

Oraindik hilabete falta da (maiatzaren 2an izango da), baina agendan gorritz apuntatzeko moduko hitzordua da. ‘TRAUTI - Hesirik Gabe’ elkarteak gonbidatuta, Pedro Solis (Bartzelona, 1968) bezalako maisu handi baten jakinduriaraz eta arteaz gozatzeko aukera izango baitugu.

Animazioaren arloan estatu mailan dagoen zinegilerik onenetakoa da Solis. Elektronika arloko ikasketak egin ostean, 30 urterekin erabaki zuen bideojokoen arloan murgiltzea, eta zinemagintzako lehen urratsak *Tadeo Jones* eta *Tadeo Jones y el sótano maldito* film laburretan eman zituen. Gero, *Las aventuras de Tadeo Jones* (2012) eta *Atrapa la bandera* (2015) film luze eta arrakastatsuak zuzendu zituen, eta gaur egun *Tadeo Jones y la leyenda del Rey Midas* filmean ari da lanean.

Eta tartean animazizoko laburmetrai onenaren bi Goya sari irabazi ditu, *La*



**Animazio film labur onenaren bi Goya sari irabazi ditu Solisek, *La Bruixa* (2011) eta *Cuerdas* (2014)lanekin**

*Bruixa* (2011) eta *Cuerdas* (2015) film laburrekin, berak idatzi eta zuzendutako pelikulak, biak ala biak.

Eta horien artean azpimarratzekoa da *Cuerdas* laburmetraiak izan duen arrakasta itzela; 260 sari jaso ditu eta 300 milioitik gora erreprodukzio izan ditu

sare sozialetan, *Guinness* liburuan sartu delarik, historian zehar sari gehien jaso dituen animaziozko filma bezala.

## ANIMAZIO-FILMEN SEKRETUAK

Oñatiko saioan animazio film bat nola egiten den erakutsiko du Solisek, modu atsegin, entretenigarri eta inostruktiboan: gidoia, *storyboard*-a, argiztapena, soinua, modelatua... Hitz batean, pertsonaiei bizitza nola ematen zaien azalduko du.

Horrez gain, *Cuerdas* bezalako lan pertsonal bat egiteko izan zuen motibazioa azalduko du, eta bere pertsonaien bidez transmitu nahi izaten dituen baloreez (tolerantzia, integrazioa, empatia...) ere hitz egingo du.

Pedro Solisek bi saio eskainiko ditu Oñatin, maiatzaren 2an, Santa Ana aretoan; bosgarren mailako ikasleei zuzendua bat (15:00), eta nahi duten herritar guztientzat, bestea (19:00). Ez galdu aukera.

**GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak

**GAKO**  
Garbitasunaren usaina

**653 70 45 47**  
Oñati

**PINTURAS URBIA MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



## Bi haurren arteko adiskidetasun istorioa

Animazio-film bikaina izateaz gain, istorio goxo, dibertigarri eta, aldi berean, mingarria ere bada *Cuerdas* laburmetraia. Pedro Solís zuzendariak bere etxean bizi izandako esperientziaren emaitza da. Garun-paralisia duen seme baten aita da Solís, eta hain zuzen, gurpil-aulki batera lotuta bizi den mutiko baten istorioa kontatzen du *Cuerdas* laburmetraiak. Umezurtz-etxe batera iristen da mutikoa, eta han Maria izeneko neskatila bat ezagutuko du. Lagun minak egingo dira, eta Mariak berehala deskubrituko du “bestelako dohai eta gaitasunez” betetako mundua Nikolas mutikoarengan. Berdintasunari eta elkartasunari buruzko istorio ederra da, maitasunagatik baino egiten ez diren sakrifizioak islatzen dituen ispilua, neskatila baten begiekin ikusia.

## Sentsibilizazio saioak egingo ditu Trautik herriko ikastetxeetan

Duela bost urte eratu zen Oñatin ‘TRAUTI-Hesirik Gabe’ elkarteak, oztopo arkitektonikorik gabeko herri baten alde lan egiteko asmoz. Pertsona elbarrituen eguneroko bizitza pittin bat errazagoa egitea da elkartearen helburua. Horretarako, Udalarekin elkar-lanean aritzen dira, oztopoak kendu, mugikortasuna erraztu, eta herrian

egiten diren obra eta urbanizazio berrietan irisgarritasun arauak betetzen direla bermatzeko. Horrez gain herritarrak sentsibilizatzeko ekitaldiak ere egiten dituzte, eta, ildo horretan, aurtengo ere lan saio bana egingo dute herriko ikastetxeetako 5. mailako ikasleekin, TRAUTIKo kideek egunerokotasunean dituzten zailtasunen berri emateko.



**TRAUTI EGUNA.** Bestalde, maiatzaren 6an Trauti Eguna ospatuko da. Urtero bezala, Trautiko kideak herriko plazan egongo dira, elkartearen jardunaren eta helburuen berri emateko.

Arantzazuko Ana

San Martin

ZATOZ INFORMATZERA!!

Adosabak Kurtzekua

Kurtzekua

italde

www.italde.com

Ramon Irizar kalea  
T. 943 78 27 07



**Apirilaren 8an,  
larunbata, eguerdiko 12etan,  
igaroko da herrigunetik**

# Harrera beroa egingo dio aurten ere Oñatik Korrikari

Apirilaren 8an iritsiko da Korrika Oñatira, helmugara, (Iruñea) iritsi bezperan. Goizeko 11,30etan jasoko dugu lekukoa Udanan, eta eguerdiko 12ak aldera igaroko da herrigunetik, Arrasate alderuntz. Orain dela bi urte goizeko ordu txikietan pasa zen Korrika gure herritik, eta, hala ere, jendetza handia batu zen ibilbidean. Beraz, pentsatzekoa da, aurtin, larunbat eguerdia izanik, herritar asko aterako direla euskararen alde korrika egitera.

Oñatiko Korrika-Batzordeak aste batzuk daramatza lanean eta hainbat ekitaldi antolatu ditu (ikus egitaraua) Korrika girotzeko. Beraz, dei egiten zaie herritarrei parte hartzera.

Gogoratu, bi urtetik behin egiten den ekimena dela Korrika, AEK-k antolatuta. Euskararen aldeko kontzientzia suspertu, gure hizkuntzaren aldeko aldarrikapena egin, eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea da helburua. Aurtengoa, 20. edizioa da. Otxandion abiatu zen martxoaren 30ean, eta Iruñean amaituko da apirilaren 9an, 2.000tik gora kilometro egin ondoren, gau eta egun, geratu

barik.

Hauek dira Oñatin lekukoa eramango dutenak, hurrenez hurren: Oñatiko Udala, EAJ, Joxely kuadrilla, Sortu, Musika Eskola, Makalena elkarte, Txanda, Oñatz Dantza Taldea, Ikastolako ikasleak, Elkar Hezi, Urgain, Gaztetxea, Lagun Leku, Ikastolako langileak, Chinchurreta, Gipuzkoako Urak, Fagor Industrial, Ulma Fundazioa eta Ulmako langileak.

## IRUÑEARA JOATEKO AUTOBUSA

Apirilaren 9an Iruñean egingo den Korrikaren amaierako festara joateko autobusak antolatu dituzte. Boga, Ona eta Izarraitz tabernetan eman behar da izena.

## PARTE HARTZEKO DEIA LUZATU DU EH BILDUK

Debagoieneko EH Bilduko ordezkariak agerraldia egin zuten Oñatin, Korrika bezalako ekimenen garrantzia aldarrikatuta eta herritarrei parte hartzeko gonbitea luzatzeko.



## EGITARAUA

### APIRILAK 7, OSTIRALA

**15:00** Korrika Txikia, herriko ikastetxeen eskutik, Foruen plaza, Etxaluze eta Santa Marina artean.

**17:00** Txokolatada plazan.

**18:00** Txorimaloak

**22:00** 'BatZuk' dokumentala eta 'Txiki' ren umorezko bakarrizketa saioa gaztetxean

### APIRILAK 8, LARUNBATA

**11:00** Berotze ariketak Etxaluze parkean, Oinastu eta Irazan taldeek girotuta.

**12:00** Korrika iritsiko da herrigunera

**13:30** Triki-dantza-kantu poteoa

**15:00** Bazkaria gaztetxean.

Txartelak salgai Boga, Ona eta Izarraitz tabernetan.



PSYCHOLOGIA ZENTROA  
ROSA RUEDA  
Zubilaga Auzoa, 20  
943 04 74 06  
psicologia-rueda@cop.es  
www.psicologiarosarueda.com

ANTSJETATEA  
ESTRESA  
TIBROMIALGIA  
DEPRESIOA...

Amara igartua  
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Iluskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera libentziak  
tel: 677 31 20 57 • email: amaliigartua@gmail.com • Oñati



## 'Karitateko Alabei, esker onez'

Karitateko Alabek ondo merezitako omenaldia jaso zuten igandean. Oñatiko herriak esker ona adierazi nahi izan zien, ia 150 urtez oñatiarren alde egindako lanagatik. Mikel Biain alkateak oroigarri bat eman zien herri osoaren izenean, eta herriko hainbat eragilek (musika banda, txistulariak, bertsolariak, dantzariak, abesbatzak...) parte hartu zuten ekitaldian.



Bezperan, Iñazio Irizarrek osatu duen 'Karitateko Alabei, esker onez / Tributo a las Hijas de la Caridad' liburua aurkeztu zen San Martin egoitzan. Argazki ugariz hornitua, Karitateko Alabek Oñatin egindako ibilbidea jasotzen da bertan. Txokolateixan dago salgai 5 eurotan.

## Kilometroetako abestia apirilaren 28an aurkeztuko dute



Irailaren 24an Oñatin ospatuko den Kilometroak jaiak badu abestia, eta hil honen 28an aurkeztuko dute, kiroldegiko kantxan (21:00) egingo den ekitaldian. Abestia eta bideoklipa erakutsiko dituzte bertan. Ekitaldi honetarako sarrerak ikastolako idazkaritzan eta Txokolateixan daude salgai 8€-tan. Auzolanean egin dute abestia. Txinparta Bertso Eskolakoek idatzi dute letra, eta herriko musikari ezberdinen artean jarri diote doinua. Kantuan adin ezberdinetako herritarrak aritu dira, eta Euskal Herriko zenbait aurpegi ezagunek ere parte hartu dute.

## Ikastolako ikasle ohien bazkaria



Txantxiku ikastolak 50 urte betetzen ditu aurten, eta hori ospatzeko ikasle ohien bazkaria egingo dute apirilaren 30ean Zubikoa kiroldegian. Txartelak (20€) apirilaren 24ra arte egongo dira salgai ikastolako idazkaritzan eta Bizipoz eta Izarraitz tabernetan. Menua hauxe izango da: ondoz betetako hostorea; ganba eta gula entsalada epela, txahal masailak eta txokolatezko brownia izozkiarekin.

**Zergatik aukeratu zenuen PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOKO Goi Mailako Heziketa Zikloa?**

Batzilegna eta Lehen Hezikuntza (Heziketa fisiko) gradua egin ondoren Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa Goi Mailako Zikloa egitez erabaki nuen. Praktotasuna eta intera profesionalak kontutan hartuta aukeratu nuen ikasketa mota hau.

**Heziketa Ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue. Hau da, erronken bidez funtzio profesionalak simulatzen dituzue.**

Bai, kursoa bi haletan eronka edo proiektu desberdinak landu ditugu, teoriarik gabe dena aplikatuz eta kasu batzuetan enpresa baten moduan lana eginez.

**Zuen kasuan zeintzuk izan dira erronkak?**

Eronka desberdinak izan dira, batzuk aipatzekotan, lehenengo mailan mekanizatu enpresa baten moduan lana egiteko aukera izan genuen, prototipo eta lote luzeak eginez, produktzioa guki antolatuz. Bigarren mailako eronka garrantzitsu bat Scoring motore baten piezak egitea izan da, bere planifikazioa, fabrikazioa, kontrola eta abar.

**Nola balioztatuko zenukete esperientzia hau?**

Esperientzia oso ona izan da eta lan mundura joateko dinami sendo bat dudala uste dut. Bi urte hauetako azkar pasatu zaizkit. Etorbizunean heziketa fisiko eta ikasketa profesional hauetako zertaz ere nahiko nituzte.

**Mikel Etxeberria Egaña (Oñati)**

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)


**Eskaintza akademikoa**

- Sistema Elektrotknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

**Ate Irekiak**

**Apirilak 5**      **18:00**

**Maiatzak 27**    **11:00**



» ELKARRIZKETA / BEÑI AGIRRE (Nabarralde Fundazioa)

# “Atxorrotx, Nafarroa gineneko lekuko garrantzitsuenetako bat da”

‘Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik’ dokumentala aurkeztuko du Nabarraldek Oñatin apirilaren 25ean

Nafarroako erresuma eta, oro har, Euskal Herriko historiaz gehiago jakin nahi dutenek hitzordu interesgarria dute apirilaren 25ean. Atxorrotzeko (Eskoriatza) gazteluaren inguruko dokumentala aurkeztuko du Nabarraldek. Nafar erresumaren egituraketan izan zuen garrantzia, eta Araba-Oñati-Leintz bailaren batasuna noiz eta nola gertatu zen azalduko dute, besteak beste. Beñi Agirrek egin digu aurrerapena.

Zer dela eta Atxorrotzeko gazteluaren inguruko dokumentala?

Nabarralde Fundazioak eta Hernani Errotzen elkarteak elkarlanean daramaten dinamika oparo batetik sortu da. Nafar erresumako tenentzien inguruko bilduma egiten ari gara. Aurretik, San Sebastian de Ernaniri buruzkoa egin genuen.

Berez, Euskal Herriko nafar historiaren atal bat bezala hartu behar da. Nabarralde bere sorreratik ari da ikuspegi horrekin gure herriaren historia ikeritzen. Hor agertzen da Atxorrotx.

Indusketa lanak egin dituzue Atxorrotxen. Zer aurkitu duzue?

**ESKAINITZA 90€** Gurtoa torre

**BEREZIA**

**EZKONTZETAN** Etxe-Aundi  
2016-2017 urteetan

Informazio gehiago,  
Tel. 943 78 19 56  
[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

Etxe-Aundi  
Kokatu Zurea

BEÑI AGIRRE

Oso material desberdinak azaldu dira. Tokiaren aberastasun arkeologikoa nabarmena da antzinatik. Jada Gorosabelek ematen digu horren berri esaten duenean 1843an harrizko gezi batzuk aurkitu zirela “toki horretan indusketa batzuk egin zirenean gizakiaren hezur batzuk aurkitu ziren, morrion deitzen dioten buru-babeseko pieza batzuk, azkonen puskak eta burdinazko beste tresna batzuk. Baita ere pezeta erdiko tamaina duten zilarrezko txanpon erromatar batzuk”.

Gaur egun Iñaki Sagredo ari da indusketarekin aurrera egiten eta berak aurkitu ditu Erresuma baskoiarekin lotura egiten duten hainbat arrasto.

**Noizkoa izango zen Atxorrotzeko gaztelua, eta noiz arte iraun zuen zutik?**

Zaila da data zehatz bat jartzea. Gizakiaren okupazioen lehenengo ebidentziak historiaurrekoak dira. Atxorrotx azpian dagoen kobazuloan Erdi Aroko arrastoez gain, Epipaleolito eta Postpaleolito garaiko ebidentziak aurkitu dira.

Nafar erresumaren arloan, berriz, Gartzia IV. Ramirez Berrezarlearen garaikoak dira (1134-1150) lehenengo tenentziak eta bere biloba Antso VII.a Azkarraren (1194-1234) txanponak aurkitu dira bertan. Seguru asko erromatarren garaitik badago nolabaiteko eraikina, zibikoa edo militarra, eta garaian garaiko hobekuntza eta handitzeak izan ditu. Badakigu, 1200ean zutik zegoela. Orduan Nafarroa ginen eta Gaztelak lurraldea inbaditu zuenean haien esku erori zen. Ez dugu



“Badakigu 1200ean zutik zegoela Atxorrotzeko gaztelua. Orduan Nafarroa ginen eta Gaztelak lurraldea inbaditu zuenean haien esku erori zen.

“Nafarroa probintzia bezala irudikatzeari utzi behar diogu. Gezur asko kontatu dizkigute. Imaginario hori ezabatu egin behar dugu.

ezagutzen gaztelarrek noiz suntsitu zuten gaztelua.

**Zein zen gazteluaren funtzioa? Zergatik zen hain garrantzitsua?**

Nafarroako errege egoitzen, Iruñea eta Naiara, eta itsasoa-aren arteko lotura egiten zuen. Historikoki Gaztelako produktuen eta merkataritza bidearen kontrola ere egiten zuen.

**Artean Gipuzkoa existitzen ez zen garaiaz hitz egiten ari gara, inguru hau guztia Nafarroako erresumako parte zen garaiaz. Gaur egungo ikuspuntutik zaila da imajinatzea ere, euskal herritar guztiok bat eginda egon ginela Nafar koroaren inguruan.**

Ez da hain zaila. Nafarroa probintzia bezala irudikatzeari utzi behar diogu lehenengo. Hori bera, ikasi dugun gure herriaren pasarte gehienekin egin behar dugun ariketa da. Gezur asko kontatu dizkigute, imaginario hori ezabatu egin behar dugu, oroimena erresetatu edo berrabiarazi. Iruñea-Nafarroako erre-

suma Baskonia-Akitaniaren jarraipen naturala da. Baskoiek baskoientzak sortutako erresuma izan zen, beraz gu tartean ginen. Erresumaren garai gorenean Urdialitzetik (Castro Urdiales) Landetaraino (Albret) iristen zen. Erresuma subirano eta independentea zen, Europako gainerako erresumekin egiten zituen hitzarmenak, ezkontzak gerrak, gurutzadak... Euskal Herria sorkuntza horretatik datorren gaur egungo errealitatea besterik ez da.

1199an erori zen Atxorrotzeko gaztelua, eta horrekin hasi zen Nafarroaren eta gainerako euskal lurraldeen arteko zatiketa. Zer gertatu zen eta nola? 1199ko ekainean, Gaztelako Alfonso VIII.aren armada Gasteizko ateetan zegoen. Bi hilabete lehenago Nafarroako Antso VII. Azkarraren koinatua hil zuten, Chàlausen, Garona ibaiaren iparraldean. Koinatua, Rikardo Lehoi-bihotza zen, Ingalaterrako erregea eta Akitania-Gaskoiniako dukea. Hortaz, Nafarroako Antso

**Kultur etxeko zine aretoan (19:00) izango da emanaldia. Dokumentala ikusi ondoren, solasaldirako tarte egongo da Nabarraldeko ordezkariekin**



**LAPIKO GORRI**  
GASTROTEKA

**ARDO ETA EDARIETAN ESKAINTZA ZABALA**  
[erreferentzia askotarikoa sorta handia]

**40 LAGUNENTZAKO JANGELA ARGITSUA**  
[autoaren beharrik gabe, herri mugan kokatua]

**ETXEAN SUKALDATURIKO KARTA MODERNOA**  
[karta guztia, epoxa eramateko prestatu dezakegu]

**JAKIEN ELABORAZIOA ETA SALMENTA**  
[taldeentzako enfurguak hartzen ditugu]

**ULTZEGIN 11, OÑATI • Tel. 943 50 20 70**



VII.a Azkarraren arreba Berengaria Ingalaterrako erregina zen Rikardorekin. Erregea hilda, ordea, lege salikoa ezarri eta koroatik baztertu zuten. Nafarroak aliaturik preziatuena galdu zuen. Errege nafarra arabiarrekin omen zebilen eta gaztelarren armada garaitzea denbora kontua izan zen. Bederatzi hilabetekoa gutxi gorabehera Gasteiz errenditu gabe pasa zuten denbora. Hortik aurrera, 1200eko neguaren azkenaldeko hilabeteetatik aurrera, gertaera konkista baten kronika moduan kontatzen da.

**Atxorrotx, Euskal Herriaren oroimen toki garrantzitsua izan beharko litzatekeela aldarrikatzen du Nabarralde, eta oker ez banago, gaztelua berre-raikitzeke aukera ere azteru duzue. Hala al da?**

Atxorrotx Nafarroa gineneko lekuko garrantzitsuenetako bat da. Hor dago, denboraren talaiatik begira. Haren harriek hitz egiten digute indusketak egiten ditugunean. Hala ere, hori ezin daiteke "aditu" batzuen jakintza soilik izan. Kulturaren, identitatearen erreferentzia eta oroimenaren altxor bat izan behar du guretzat, euskaldunontzat, nafar guztiontzat alegia. Gerra hura eta beste batzuk galdu izan ez bageni-

## “ Nola izango da Euskal Herria independentea, herritarrek euren historia ezagutzen ez badute? ”

**O**rain dela hogeit bat urte eratu zen Nabarralde Fundazioa, memoria kolektiboa berreskuratu eta ezagutzera emateko asmoz, eta, oso laburbilduta, hauxe da berak defendatzen duen tesia: Nafarroak izan behar du erreferentzia euskal estatu baten sorrera prozesuan. Horretarako, baina, gure herriaren benetazko historia ezagutu beharra daukagu, Beñi Agirrereren ustez. “Nola izango da Euskal Herria independentea, herritarrek euren historia ezagutzen ez badute? Subjektu politikoa probintziara banatuta dagoela sinestaturik baldin badaude? Nola izango gara burujabe konkistatu gaituzten horiek kontatzen digutena, aintzat hartu ez ezik, gure egin eta geurea bezala kontatzen badugu? Nola erabakiko du banatzea lotura batetik, bere buruaz autoestimurik ez duenak? Guk ezagutzen dugun horretatik eraiki dezakegu etorkizuna, asmatu edo kale egin dezakegu; baina ez ezagutzetik ez goaz inora”.

tu, egun zutik iraungo zuen gazteluak. Irabazle izan zen Gaztelako herrietan haienak zutik eta zainduak dirauten bezala, alegia.

Gure herriaren bazter guztiak hormigoiez betetzen ari dira, baina, ez dirudi porlanik dagoenik harriz-harri berreraiki beharko litzatekeen obra xume batentzat.

**Nolakoa izango da apirilaren 25eko Oñatiko saioa? Nori gomendatzen diozu?**

Dokumentala tresna oso egokia da zabaldu nahi dugun errelato hau gizarteratzeko. Irudiak



**Araba, Oñati eta Leintz bailaren batasuna noiz eta nola gertatu zen ikusiko dugu Oñatiko saioan**

izugarriak dira. Dron batekin zerutik hartutako imajinak gozamenerako dira. Oro har, ezagutzen ez dugun kokapenean barneratuko gaitu, kontatzen dugun gidoiari indarra eman eta ulergarri egiten du esaten duguna.

Araba-Oñati-Leintz bailaren batasuna noiz eta nola gertatu zen ikasiko dugu. Proiektzioaren ondoren solasaldia egiteko saioa izango dugu. Nabarralde hobeto ezagutzen eta gure historiaren pasarte ezkutatuak azalarazten ahaleginduko gara Iñigo Larramendi eta biok. Mereziko du zalantzarik gabe.

**Lur Gorri**

lurgorridenda@gmail.com

- Pentsuak
- Lan tresnak
- Haziak
- Landareak
- Lan erropak

**ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA**  
eta beste hainbat gauza...

943 905 740 - 663 384 052

**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxa: 943 71 62 40

**CORTABARRIA**

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheak • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletelne.es



‘Bizipenak eta hausnarketak’ (Txalaparta) argitaratu berri duen liburua aurkeztu zuen Oñatin Tasio Erkizia (Lesaka, 1943) Ezker Abertzaleko buruzagi ohiak. Biografia soila baino gehiago, lekukotasun pertsonal eta politikoa dela adierazi zuen liburuari buruz; “balaunaldi baten ametsak, galerak, lorpenak, pozak eta minak daude jasota bertan”.

Herri Batasunaren sorreran parte hartu zuen Tasiok eta mahai nazionaleko kide izan zen hemezortzi urtez, 80. eta 90. hamarkadetan. Oso urte gogorak izan ziren Euskal Herriarentzat, eta bere gogo- eta eskatu genion Tasiok. “Uste dut, oro har, ekarpen handia egin diola herri honi Ezker Abertzaleak. Eraso guztien aurrean tinko mantendu du herri honen nortasuna. Badaude hainbat akats, noski, baina lehial jokatu dugu herri honekiko, eskatu digun esfortzua eta sufrimendua ematen jakin izan dugu, eta duintasuna mantendu dugu”.

Bere garaietatik hona Ezker Abertzalearen estrategian eta jardunean eman den aldaketari buruzko bere ikuspuntua ere eman zigun Tasiok. “Herri honek eskatzen zion aldaketa sakon bat, eta uste dut gai izan dela kuraiaz bide hori egiteko. Eta larrutik ordaindu arren, koherentziaz eta batasun handiz jakin dugu bide hori egiten, eta mantentzen herri honen esperantza, ilusioa eta kementa”.

#### EZKERRAREN KRISIA

Ezkerra krisi larrian dagoela uste du Tasiok, mundu osoan. “Eta Ezker Abertzaleak asmatu behar du bere tokia aurkitzen krisi horren baitan, utopiarri eutsiz (injustizien aurrean tolerantzia zero), eta aldi berean pragmatikoak izanez. Ezin gara diskurtso mailan geratu. Bere etorkizuna eraikitzeke tresnak eskaini behar dizkiogu herri honi. Auto-eraketa eta auto-enpoderamen-



**TASIO ERKIZIA / Ezker Abertzaleko buruzagi ohiak**

## “Eraso guztien aurrean Ezker Abertzaleak tinko mantendu du herri honen nortasuna”

dua bultzatu behar ditu ezker-eraketa arlo guztietan (energia, elikadura, hezkuntza, finantzak, komunikabideak...)”.

Gizartea, oro har, erosoegi ikusten duela ere adierazi zigun HBko historikoak. “Epelkeriak, errazkeriak ez garamatza inora. Ongi bizitzea ondo dago, baina horrek ez du esan nahi esfortzurik gabe bizitzea. Esfortzurik gabe ez da duintasuna mantentzen. Mendi tontorretik paraje eder-eraketa ikustea gustatzen zaigu denoi, baina mendi tontorrik ez dago igoerarik gabe. Eta bizitzan ere berdin. Geure buruaren jabe izan nahi badugu, indartsuak izan behar dugu”.

#### ZATIKETA ARRISKUA

Ezker Abertzalearen ildo nagusitik aldenduz, ATAk (Amnistia eta Askatasuna) hartu duen bideari buruzko iritzia ere eman zigun Tasiok. “Lehenengo eta behin, argi esan behar da estatuan indar asko daudela Ezker Abertza-

learen apustua boikoteatzeko interesatuta, eta gure artean zatiketa sortu guran. Beraz, hainbesteko sufrimendu eta borroka luzearen ondoren, ez gaitu harritu behar halakoak sortzea. Nik ulertzen dut jende bat haserre egotea preso-egoera dela-eta; ni neu ere haserre nago. Baina amorru hori antolatu egin behar dugu gehiengoak jartzen duen bide-tik. Nik ere uste dut Ezker Abertzaleak determinazio gehiagorik egon behar duela kalean, baina ezin dugu bakoitzak bere bidea egin, eta are gutxiago, etsaia etxean bilatu. Zatiketak ez digu inolako mesederik egiten. Batasuna behar dugu, indarrak bildu”.

**Ezin gara diskurtso mailan geratu. Bere etorkizuna eraikitzeke tresnak eskaini behar dizkiogu herri honi**



#### TORTURAREN INPUNITATEA

Tasio Erkizia bera ere bortizki torturatua izan zen 1975ean (bi hilabetez egon zen ospitalean, larri), eta Sandra Barreneixaren tortura salaketan epaiketa hasi zen egun berean, hausnarketa egitea eskatu genion. “Notizia ona da epaiketa hastea, baina garbi ikusi da, fiskala ari dela tortura babesten. Azken 50 urteetan 5.600 tortura kasu gertatu dira Euskal Herrian, Euskal Memoriak jaso duenez, eta 19 epaiketa besterik ez, kondena ridikuloekin, eta indultuekin.

Gainera, garbi esan behar da, torturak helburu politikoa dituela eta arduradun politikoak ere badituela, besteak beste, Atutxa jauna. Hau ez da polizia gaizto batzuen kontua. Sandraren ordez goardia zibila balitz jipoitua izan dena, agintari guztiak joango ziren babesa ematera, eta zergatik begiratzen dute beste aldera torura kasuen aurrean? Hemen denok egin behar dugu auto-kritika, eta bakoitzak daukan erantzukizuna asumitu, etorkizuna eraiki ahal izateko”.

joste tailerra

# Jostun Chic

Goluri Etxebarria Arzuaga

- Arropen konponketak
- Erreformak
- Jantzigintza berria

**Motxon kalea, 3**

**T. 635 749 477**

Adin guztietarako klaseak

# HERRIKO KIROL AZPIEGITUREN PLANGINTZA

## Herritarren ekarpenak jasotzeko mahaia jarriko da kiroldegian

### apirilaren 24tik 29ra

Herriko kirol azpiegituren plangintza egiten ari da Udala. Helburua da diagnosa egitea eta etorkizuneko beharrak planifikatzea testuinguru ekonomikoa kontuan harturik. Plangintza hori herritarrekin batera landu nahi du Udalak, eta, horretarako, herritarrez eta eragileez osatutako "Talde Eragilea" sortu du. Taldea, une honetan, egungo kirol azpiegituraren eta etorkizun laburrean beharko genukeenaren diagnosa egiten dabil.



**Etorkizunean herrian beharko ditugun kirol instalazioen inguruko ekarpenak egitera animatu nahi ditugu herritarrak**

Diagnosi plurala eta sakona egin nahi du, eta horretarako herriko kolektibo ezberdinen balorazioak ez ezik, herritarren ekarpenak ere jaso nahi ditu. Horrela, bada, apirilaren 24tik 29ra bitartean aukera izango dute herritarrek ekarpenak eta proposamenak egiteko Zubikoa kiroldegiko harrera gunean jarriko diren panel informatibo bidez ekarpenak egitera animatu nahi ditugu herritarrak.

# Txaketuako bidegurutzeta oinezkoentzat, arratsalde eta jai egunetan

## » 3 hilabeteko proba pilotua egingo da

Martxoaren 15ean sartu ziren indarrean erdiguneko kaleetako (Kale Zaharra, Kale Barria eta Atzeko Kale) trafikoa ordenatzeko arau berriak. Aldaketa nagusia, Zazpibideta edo Txaketuako bidegu-rutzeari eragiten diona da, izan ere, zamalan orduetan bakarrik (07:15-12:00) egongo baita zabalik motordun ibil-gailuentzat. Gainerako orduetan, eta jai egunetan egun osoan, garraio publikoa eta bizikletak bakarrik igaro ahal izango dira bertatik.

2014an egin zen Mugikortasun Jasangarrirako Planean jasotako neurria da. Oinezkoentzako guneak irabaztea, hauen segurtasuna eta bizi-kalitatea areagotzea, eta bertako merkataritza sustatzea da neurri honen, eta azkenaldian hartu diren beste neurri batzuen (TAO-OTA bidezko aparkalekuak, baimendutako ibilgailuak

bakarrik sartzea oinezkoen kaleetara, Herribusa...) helburua.

Txaketuako bidegurutzeta ixteko neurriarekin 3 hilabeteko proba pilotua egingo da(ekainaren 15era arte). Bitarte horretan trafiko neurketak egingo ditu udalak herriko gune ezberdinetan, datuak baloratu, eta neurriarekin jarraitu ala ez erabakitzeko. Iazko udazkenean egin ziren neurketen arabera, egunero, batz bestea, 3.631 ibilgailu pasatzen dira Unibertsitate Etorbidetik, eta %20k ez dute abiadura muga errespetatzen.



**Astelehenetik ostiralera eguerdiko 12:00etatik hurrengo goizeko 07:15ak arte (larunbatetan 07:45 arte) eta igande eta jai egunetan egun osoan, garraio publikoa eta bizikletak bakarrik igaro ahal izango dira Txaketuako bidegurutzetik.**

### EAJ AURKA

Txaketuako bidegurutzeta ixtearen aurka dagoela adierazi zuen EAJk martxoko osoko bilkuran."Gurekin kontsultatu gabe hartutako neurria izan da, eta, gure ustez, partehartze prozesu bat egin behar da halako neurria hartu baino lehen" Arteria nagusia itxi baino lehen, udaltzainen bidez erregulatzea proposatu du EAJk.

 caravanas  oñate	<b>• GALBARAGINTZA - CALDERERIA</b> Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel: 943 71 63 50 <a href="http://www.caravanasonate.com">www.caravanasonate.com</a>
	<b>• BIZIKLETAK</b> <b>• ERREMOLKEAK</b> <b>• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK</b> Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel: 943 78 05 65 Atzeko kale, 32 (erakusketa)

## Udalak positiboki baloratu ditu mugikortasunaren arloan hartutako neurriak

NAKINA	ARRAIOA 2016	URTARRILA 2017	OTARRILA 2017	GUZTIRA
Alta Motino	1337	2147	1366	4850
Txakstara	1090	2081	2014	5185
Forty kale	1681	3345	2631	8657
Zuñburi	1042	2095	2096	5233
Molson	1026	2315	2481	5822
<b>SUZTIRA</b>	<b>6172</b>	<b>11969</b>	<b>13583</b>	<b>29724</b>

### ►TXANDAKAKO APARKALEKUAK

Abenduan jarri zen martxan TAO/ OTA bidezko txandakako aparkaleku sistema herriguneko zenbait kaletan, eta lehenengo hiru hilabetetako datuak aztertuta, balorazio positiboa egin du gobernu taldeak. Hilean 12.000 inguru tiket ateratzen dira. Portu kalekoa da gunerik erabiliena, taulan ikus daitekeen moduan. Aparkaleku sistema berri hau jada barneratuta dagoela uste dute udal arduradunek.

Gunea	Alta Motinoan (5. gunea)	Bidebarnetan (6. gunea)
Plazak	33	37
Txartelak	53	85


### ►BERTAKOEN APARKALEKUAK

Erdiguneko kaleetako bizilagunentzako bi gune bereiztu ditu Udalak. Gune horiek erabiltzeko 157 herritarren eskaerak jaso ditu udalak, baina 19 ez dira onartuak izan, eskatzaileen autoa ez zegoelako kale horietan erroldatuta.

Gunea	Bizilagunak	Dendak
Kale Barria	83	29
Atzeko Kale	37	11
Kale Zaharra	64	19
<b>Hornitzaileak</b>	<b>284</b>	

### ►OINEZKOEN KALEETAN BAIMENDUTAKO IBILGAILUAK SOILIK

Oinezkoen kaleetan (Kale Zaharra, Kale Barria eta Atzeko Kale) baimendutako ibilgailuak bakarrik (bizilagunak, dendariak, eta hornitzaileak)sartu ahal dira orain zamalan orduetan (08:00-12:00). Horretarako, baimen-txartela eskatu behar izan dute udaletxean. Gremioetako langileek udaltzaingoa baimena eskatu ahal izango dute kale horietan lanen bat egin behar dutenean.



### ►HERRIBUSAK GERO ETA ERABILTZAILE GEHIAGO

Herri barruko garraio publikoa errotzen ari da herritarren artean, erabilera datuek erakusten duten moduan. Zerbitzua martxan jarri zenetik goraka doa erabiltzaile kopurua, eta, adibidez, otsailan, 3330 bidaiarik erabili zuten.

**AUZOTAXIA** Iazko ekainetik abendura bitartean 645 bidaia egin zituen auzotaxi zerbitzua, baina zerbitzua erabiltzeko aukera duten 132 erabiltzaile potentzialetatik 29k bakarrik erabili dute auzotaxia. Beraz, zerbitzu honi bultzada berria emateko asmoa azaldu du udal gobernu taldeak.

## Apiirilaren 24an hasiko dira San Lorentzoko bidegorria eraikitze lanak

Ugarkalden eta Lazarraga kalean amaitzen diren bidegorriak lotuz, San Lorentzo auzoa aldenik alde zeharkatuko duen bizikleta-bide berria eraikitze lanak hil honen 24an hasiko dira, eta aurreikuspenak betetzen badira, bost hilabeteko epean amaituko dituzte. Ondoko planoan ikus daitekeen moduan, GI-2630 errepidearekiko paralelo egokituko da bidegorria. Egaralurrek egingo ditu lanak 198.163 (BEZ kanpo) eurotan.

Bestalde, San Lorentzoko urbanizazioa berritzeko 8. faseko lanak Aste Santuko jai egunen bueltan hasiko dira, 10 eta 24 zenbakidun etxe-blokeen inguruan. Ugarte Eraikuntzak egingo ditu lanak 197.793 (BEZ kanpo) eurotan, eta 5 hilabetez luzatuko dira.



# ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIAKAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa
- ...

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI  
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

## Udako ordutegia sartu da indarrean Oñati-Arantzazu autobus zerbitzuan

**ASTE SANTUKO JAI EGUNETAN ERE AUTOBUS ZERBITZUA EGONGO DA**



Udako ordutegia: apirilaren 2tik urriaren 29ra

Oñati-Arantzazu	Arantzazu-Oñati
07:30	08:00
08:30	09:00
09:30	10:00
10:30 (1)	11:00
11:30	12:15
12:30	13:15 (1)
13:30	14:00
14:30	15:00
15:30 (2)	16:00
16:30 (2)	17:15
17:30	18:00 (1)
18:30	19:00

- (1) Arrikutzen geldiunea egingo du  
(2) Arrikutzen geldiunea, eskatuz gero

### AUKERA UGARI ESKAINTZEN DITU

Aukera ugari eskaintzen ditu Oñati-Arantzazu autobus zerbitzuak. Arantzazuko santutegira igo, Parketxea, Gomiztegi edo Arrikruzteko koba bisitatu, Arantzazu aldeko jatetxe eta ostatuetara hurbildu, edo Aizkorri-Aratz natur parkeko mendi ibilaldietako bat egin eta udaberriak eskaintzen dizkigun paraje ederrez gozatzeko aukera eroso eskaintzen digu autobus zerbitzuak.

## Bi proiektuk partekatuko dute aurreneko 'Oñatiko Udala Grant' beka



Udalak eta Lege-Soziologia Erakundeak iazko udan sinatu zuten lankidetzarako hitzarmenaren harira eratu den *Oñatiko Udala Grant* beka 4.000 euroko dotazioa du, eta bi egitasmoren artean partekatzea erabaki du epaimahaiak. Batetik, Fernando Vertiz argentinarra aztertuko du 2007-2016 arten Oñatiko udalak hirigintza antolatzeko indarrean jarritako araudiek duten potentziala eta etxebizitzaren prezioen izandako ondorioak. Bestetik, Patara McKeen kanadiarra euskal identitatearen konplexutasuna aztertuko du.

## Dirulaguntza deialdiak egin ditu Udalak

● **GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO DIRU LAGUNTZAK.** Hiru laguntza lerro daude. Garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzarako proiektuak garatzeko laguntzetara 90.000 € bideratuko ditu udalak. Apirilaren 18ra arteko epea dago eskaerak aurkezteko. Bestalde, Oñatin bertan sentsibilizazio edo hezkuntza jarduerak egiteko 5.000 € bideratuko dira. Kasu honetan, ekainaren 30a baino lehen egin behar dira eskaerak. Azkenik, larrialdiko edo laguntza humanitarioko egitasmoetara 23.000 € bideratuko dira, eta azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak egiteko.

● **IKASTETXE ETA GURASO ELKARTEENTZAKO DEIALDIA.** Arlo akademikotik kanpo ikastetxeek burutzen dituzten proiektu hezitzaileak sustatzeko 81.000 euroko diru atala bereiztu du udalak, eta 6.000 eurokoa, eskoletako guraso elkartearen jarduna diruz laguntzeko. Apirilaren 7a arteko epea dago eskaerak aurkezteko.

● **HAUR ETA GAZTERIA SAILEKO LAGUNTZAK.** irabazi asmorik gabeko gazte taldeei, norbanakoei edo haurren sustapenerako familia elkartei zuzendutako deialdia da. Kultur sormena eta hedapena, urteko programazioa eta ez-ohiko jarduerak sustatzea da helburua. Eskatzaileak (taldea bada, kideen erdiak, gutxienez) Oñatin erroldatuta egotea eta 12-30 urte artekoa izatea eskatzen da. Apirilaren 21a da eskaerak aurkezteko azken eguna. Informazio gehiago Gaztelekuan.

● **KIROL ARLOKO DIRU LAGUNTZAK.** Bi laguntza lerro daude: kirola sustatzeko antolatzen diren ekintzetarako 3.000€, batetik, eta ohikoak ez diren kirol jarduerak antolatzeko 10.000€, bestetik. Diru laguntza hauek klub edo kirol elkarte nahiz entitate juridikorik ez duten talde eta partikularrek eska ditzakete, egoitza Oñatin baldin badute, edo, bailarakoa izanik, kirolarien %15, gutxienez, Oñatin erroldatuta badaude. Apirilaren 10a baino lehen egin behar dira eskaerak.

**ANE MERTZERIA**



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umooen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

## Ingurumen ikerketarako beka deialdia

Ingurumen arloko ikerketak egiteko, bi urtetik behin ematen duen beka eskatzeko deialdia egin du udalak. 2017-2018ko deialdian aztertu beharreko gaia hauxe da: Energia berriztagarriak. Iragana, oraina eta etorkizuneko aukerak. Bekak 12.000 €-ko dotazioa du.

Edozein herritarrek nahiz lantaldek jaso ahal izango du beka. Ezinbestekoa da diplomatua izatea, eta EGaren pareko euskara maila izatea. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera 30 egun naturaleko epea zabalduko da eskaerak aurkezteko udal bulegoetan.

Proposatzen den ikerketa lanaren kalitatea, eskatzaileen formazioa eta Oñatiko herriaren ezagutza hartuko dira kontuan, beka nori eman erabakitzeke orduan.

## Selma Huxley ikerketa bekarako deialdia egin du udalak



Selma Huxley ikerlari ingeles-kanadiarraren izena duen ikerketa beka emango du udaleko Berdintasun sailak aurreko lehen aldiz. Oñatiko emakumeek historian zehar egindako ekarpenak aztertzea eta plazaratzea da bekaren helburua. Udalaren webgunean ([www.onati.eus](http://www.onati.eus)) kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak. Proposamenak aurkezteko azken eguna maiatzaren 11a da.

## Adingabeen harrerarako diru laguntza deialdia egin du udalak

Garapen bidean dauden edo hondamendiren bat jasan duten herrialdeetatik Oñatira datozen adingabeen denboraldi baterako harrerarako diru-laguntza deialdia egin du udalak. Helburu horrekin lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakunde juridikoen bidez emango dira laguntzak. Harrera familiak Oñatin erroldatuta egon behar du.

Adingabeen joan-etorriko gastuak, aseguroak edota osasunarekin (medikamentuak, betaurrekoak, eta dentista) lotutakoak dira udalak diruz lagunduko dituenak. Gehienez 1.500 € adingabe bakoitzeko. Interesatuek maiatzaren 31ra arteko epea dute eskaerak aurkezteko udal bulegoetan.

## Lehen sektorea bultzatu diru laguntzak

Oñatiko lehen sektorea bultzatzeko eta sustatzeko diru laguntza deialdia egin du udalak. Lau atal bereizten dira: (1) Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko (12.000€). Epea: azaroak 30. (2) Bertako produktuak merkaturatzeko (22.000€). Urte hasieran egin behar da eskaera orokorra, eta udalak 50€-ko laguntza zuzena emango du, azokara joandako larunbat bakoitzeko. (3) Nekazaritza erabilerarako ura ordaintzeko (500€). Epea: abenduak 31. (4) Putzu septikoak garbitzeko (6.000€). Epea: abenduak 31.

## Etxebizitza soziala emateko deialdia

Bidebarrietako kaleko 24an (1-C) hutsik geratu den etxebizitza soziala errentan emateko deialdia egin du udalak. Bete beharreko baldintzak hauek dira: Oñatin erroldatuta egotea, gutxienez 5 urtez, eta urteko diru sarrerak ez izatea gutxienezko soldata bider 1,7 baino handiagoak.

## Joseba Arregi etxeratzeke garaia dela aldarrikatu dute



Gaztelekua lepo bete zen apirilaren 1ean, Joseba Arregi 'Azpilleta' preso etxeratzeke aldarria egiteko. Arregik 71 urte ditu eta, dagoeneko, 25 urte bete ditu Frantziako eta Espainiako kartzeletan. Gaur egun Villenako (Alacante) espetxean dago, etxetik 780 kilometrorra. Antzazuko auzotarrek antolatutako ekitaldian *Azpilletak* espetxetik bidalitako gutuna irakurri zuten. Modu batera edo bestera laguntza eta sostengua ematen dioten herritarrei eskerrak eman zizkien Arregik, eta preso guztiak, bereziki gaixo daudenak, gogoan izateko eskatu zuten. Bestalde, Arregiren egoera juridikoaren berri eman zuten Larraitz Ugartek; aplikatzen zaion zigor kodearen arabera, Arregiren irteera data 2018an edo 2028an izan daitekeela azalduz.



**ARGITARATZAILEA:** Oñatiko Udala  
**ZUZENDARIA:** Iñigo Arregi  
**PUBLIZITATEA:** Aratz Losada  
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Aratz Losada

**KOLABORATZAILEAK:** Jerardo Elortza  
eta Udal Euskaltegia  
**INPRIMATEGIA:** Gertu  
**Tirada:** 5.500 ale  
**Lege gordailua:** SS-357/91

**Posta-e:** kontzejupetik@onati.eus  
**Publizitatea:** publi@onati.eus  
Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## GUTUNAK

Azaleko argazkia: Amaia Arzamendi

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraan izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

## ESKERRAK EMANEZ

*Arantxa Kortabarria*

Badira egun batzuk gure osaba Ramon gure artetik joan zela gaixotasun gogor eta larri baten ondoren. Orain atzera begira konturatu gara zenbat jenderen laguntza behar izan dugun ibilbide motz baina bortitz honetan eta eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen.

Lehenik eta behin Oñatiko udaltxeko Gizarte Laguntzailea den Esther Loibideri; mila esker zure laguntza, pazientzia, hurbiltasuna eta jakinduriagatik.

Eskerrak asko Elkar Zabal elkarteko kideak diren Jesus Mari Aramburu eta Susana Altuna, gure osaba zaintzeko laguntzaile baten bila egin-dako lanagatik eta jarritako gogo-gatik; mila esker zuen lan ixilagatik.

Bihotzez, eskerrak asko egunero eta batez ere momentu zailenetan bere ondoan izan zareten Oihana Ezkurra medikua eta Angelika Ugarte erizainari: Lan bikaina egin duzue!

Eta esker on berezia hilabete hauetan bera zaintzen egon den Llalemari, nikaraguar neska gazteari. Bera izan bait da bere azken egun hauetan aingerurik onena. Mila esker guztiei, HAINBESTE EMATEAGATIK! Bihotz bihotzez.

## SUFRIMENDUAK BADITU

### HAINBAT AURPEGI

*Iosu Lizarralde*

Euskal Herriko gatazka politiko-aren testuinguruan, giza eskubi-deen urraketa etengabeak tragedia handia (izan) dira milaka familiarentzat. Tragedia hori aitortu, onartu eta erreparatu beharra dago, bere osotasunean;

tragedia guztiak, inolako salbuespenik gabe.

Baina tragedia iraganeko zerbait izan dela adierazteko eta erreparazioari ekitzeko, egun indarrean dauden tragedia eta sufrimendu zantzu guztiek amaitu beharra dago. Gaur egun, sufrimendua eragiten jarraitzen baita Euskal Herrian, baita Oñatin ere.

Sufrimenduaren aurpegi batzuk Alberto eta bere familiarenak dira. Martxoaren 10ean bete dira 2 urte Alberto Plazaolak, 24 urte giltzapean bete ostean, guardia zibilarren hatzamarretatik ihes egin eta herria utzi behar izan zuenetik. Orduetik erbestean da Alberto, familia, lagun eta ia mendea bete duen aita Juanitoren-gandik urruti.

Joseba, Xabin, Xabier eta beraien familia eta lagunak sufrimenduaren beste aurpegi batzuk dira. Hilaren 29an beteko dira 25 urte Joseba polizia frantsesak Bidarten atxilotu zutenetik. Uztailean aldiz, 20 urte beteko dira Xabier eta Xabin atxilo eraman zituztenetik. Hirurak ehunka kilometrotara daude.

Beste aurpegi bat otsailaren 12an Sevillan preso bat bisitatu ostean etxera bidean zela kotxe istripua izan zuen oñatiko semearena. Kotxean kalteak bakarrik jasan zituen, zorionekoa beraz, indarrean jarraitzen duen dispertsio politika kriminal hori besterik ez baita: zoria. Oraingo honetan zoria onerako izan da, ez 2007 hartako abenduan bezala, zori txarrak Nati Junko herriko alaba eraman zuenekoa. Sufrimenduaren beste aurpegi batzuk Nati eta bere familiarena.

Azken aurpegia, Angelena. Otsailaren 22an Angel Telleria oñatiko semea atxilotu zuten Mexikon eta espainiaren esku utzi ostean Sotoko espetxean daukate preso.

Oñatiko herritarren iritzia askotarikoak eta pluralak direla jakinik, guztion iritzia, guztion izaera eta guztion exis-

tentzia ere islatuko dituzten espazioak eta ekimenak sortzea ezinbestekoa da, Arantzazuko auzotarrek egin berri duten bezala, indarrean diren sufrimenduei amaiera ematea aldarrikatu eta etorkizuneko bake eszenatokia eraikitzeko bidean.

## ANTIDESARROLLISMOA

*Ander Lizarralde*

Apirilaren 26an arratsaldeko 18:30etan Agaztetxean antidesarrollismoari buruzko auto-formakuntza bat egingo dugu.

Antidesarrollismoak prolertargo iraultzailearen jarraipen bezala hartzen du bere burua, baina bi puntu gehitzen dizkio hari: progresuaren kritika eta lurraldearen defentsa

Kapitalismoak bere interesen arabera antolatu du lurraldea eta gaur egun ezinbestekoa du lurralde antolaketa jakin hori. Hiriburua erraldoiak, turismo guneak, nekazaritza industrialarentzat lursailak, herrixkak hutsik eta tartean merkantziak eta pertsonak garraiatzeko azpiegitura erraldoiak (autopistak, abidura handiko trenak, superportuak). Lurraldea kapitalaren menpe. Antidesarrollismoak dio kapitalismoari aurre egiteko klase borrokaz gain lurraldea defendatzeko borrokak martxan jarri behar direla

Antidesarrollismoa antikapitalista, antiestatista (Estatuaren aurka eta asanblearismoaren aldekoa), antiprogresista, antikonsumista eta antiindustrialista da aldi berean. Eta ez dago ados gaur egungo gizarte ereduaren eraldaketa iraultzaile bat bazter batean uzten duen ekologismoarekin

Eta ideologia obrerista ere kritikatzeko du progresuarengan fedea duelako eta ez duelako produkzioaren funtsa kues-

tionatzen. Zer produzitzen dugu eta zertarako? Ze ondorio ditu produkzio horrek, nondik datoz lehengaiak, ze baldintzatan lortu dira, ze he-rrialderi lapurtu dizkiogu? Beharrezkoak ote dira ondasun horiek Antidesarrollismoa-rentzat gizarte industrialak produzitzen duen gehiena inutila eta kaltegarria da eta behar faltasuen eta desira manipulatuaren ondorio da

Nik ez dut ezagutzen, nahiz eta praktika oso zaila daukan, kapitalismoa egoikiago kri-tikatzen ailegatu den azterketa sozial-politikorik

## OÑATIKO 'GERNIKAKO ARBOLA': 100 URTE

*Amaia Erostarbe (EAFren zinegotzia Oñatiko udalean)*

Esteban Gomendio Alzaa alkate zela, 1916ko urtarrilaren 27an onartu zuen Oñatiko udaleko osoko bilkurak Gernikako Batzar Etxeko haritzaren mentu bat Oñatin ere sartzea. Halaxe egin zen otsailaren 2an, eta, harrezkero, Oñatiko "Gernikako arbola" plazaren aldamenean dago frontoira bidean, kioskoari lagun egiten.

Dotore dago, osasuntsu, burdinazko hesiarekin babestuta eta loreak inguruan dituela.

Erabaki hura hartu zenetik, 100 urte bete dira, eta mendeurren hori ospatu zuen Oñatiko herriak eta udalbatza osok otsailaren 3ko ilunkaran zuhaitzaren inguruan; Bizkaiko eta Gipuzkoa Batzar Nagusietako presidentek (Ana Otadui eta Eider Mendoza) ere etorri ziren. Musika-banda, Udal Txistulariak, Oñatz dantza-taldea, Txinparta Bertso Eskola, eta Oñati abesbatza eta Ganbara Abesbatza izan ziren ekitaldia girotzen.

Ospakizun jendetsu horretan, Jabier Bikuña Urzelai hargina ere egon zen herritarren artean, eta gogora ekarri nahi dut haren lan-ibilbide oparoa. Garagaltza auzoko Albarritza baserrian jaio zen Jabier, eta hargintzan jardun du bizitza osoan; berari zor diogu plazako haritzari omenaldi-egunean behealdean jarri zitzaion harlanduzko oroigarri ederra. Hargin oso ona izan da eta da. Garrantzi handiko lan ugari egin ditu harri landuarekin (berriztatze-lanak eta lan berriak), bai Oñatin, bai beste leku askotan: Arantzazun ibili zen Jorge Oteizarekin, elizako apostoluak jarri zirenean; hainbat eraberritze-lan egin ditu

Oñatiko parrokian (klastroan eta kanpandorreko alboetako harlanduzko lau imajinetan); Donostian, Artzai Onaren katedralaren zaharberitze-lanetan aritu da eta baita Santa Marina elizako aldarean ere. Beste hainbat eta hainbat elizatan eta eraikin historikotan ere ibili da, batez ere zaharberitze-lanetan. Bejondeizula, Jabier!


## OHARRAK ETA DEIALDIAK

### 1981ekoen KINTTADIA

> Maiatzaren 6an, Sanmiel Txikittan, 1981ekuen kinttadia ospatuko dogu (1961eko irailaren 1etik 1962ko abendura arte jaixotakuak). Egitaraua hauxe izango da: Hildako kinttuen aldeko meza Agustinoetan (19:30); poteoari hasiera Izarraitzen (20:15); afaixa Etxeberria jatetxian (21:00). Emun izena apirilaren 28xa baiño lehen: [urteaga@eps.mondragon.edu](mailto:urteaga@eps.mondragon.edu); [ekortabarria61@gmail.com](mailto:ekortabarria61@gmail.com); edo [akelena@euskalnet.net](mailto:akelena@euskalnet.net)

## 📷 HILEKO IRUDIA


Argazkia: Joxe Ramon Txintxurreta



Aloña Belarretik ikusita. Txantxikua ote?

# “Bai baina...”

# ‘Hautsak harroketan’



## ZUEK ERE ESAJERADA BATZUEK ZARETE

“Esajerada” deitu gaituzte, kalean piro baten aurrean haserretu garenean, ekintza horren helburua ez dela gu ondo sentiaraztea jakin arren.

“Histerika” deitu gaituzte, etxera bidean lagun bat atzetik jarraitu dutenean eta gizon horren jarrera salatu dugunean, beraiek etxera bakarrik joatearen beldurra izatea zer den ez dakitenean.

“Feminazi” deitu gaituzte, eraso sexista baten aurrean kalera irten eta gizona salatu dugunean, matxismoak 2016. urtean Euskal Herrian 7 emakume hil zituelarik.

Ez gara histerika batzuk, zuen jarrera matxistak onartzen ez dituzten emakumeak gara.

## ‘YOISMOA’: EGOZENTRIKOEN ERAKUSLEIHOA

Modan dago, boladan, ez egin zalantzarik. Lehen kolpean atentzioa eman zidan hitz berria zelakoan, baina ez; googleatu ondoren laster asko hartu nion neurria: nik neuk, berekoi, harro, ego... hitzen itzalean, babesa hartzen duen “yoista” egozentrikoa ageri da. Zaharrak berri.

Agustin  
Goenaga



Sare sozialetan bizi da “yoista”, eta bere etxe kuttunena bihurtzeraino iritsi da. Aurrena, selfieak bidaltzea zen egunero-ko jarduera saihestezina. Geroxeago aldaketa egin du eta Instagram etxe erraldoian ostatu hartu duenean, akabo. Selfien sukarra bere onera ekarri beharrean, haratago jo du eta argazkilari profesionalen zerbitzu eske jarri da. Irudi onena eman behar du eta selfien akatsek ez dio- te, hor nonbait, asebeste. Gezurraren para-

disuan bizi denak badaki harremanak estutzeko, dibertigarri eta liluragarri agertzeko, bere benetako itxura faltsutu behar duela jokoz kanpo geratu nahi ez badu.

Aztoratuta dabil “yoista” errealitate birtualaren unibertsoan. Ohituak ginen mundua dikotomia ankerrean ikusten: ekialdea eta mendebaldea, komunismoa eta kapitalismoa, herrialde garatuak eta azpigaratuak. Eta bat-batean, gure harri- durarako, mundua online eta offline bihurtu zaigu, birtuala: izan litekeena baina ez dena. Hau nahasmena. Hori gutxi ez eta, adituen iritiz online zaude edo ez zara existitzen.

Psikologoaren aukietan esertzeko ilara amaiezinak aurreikusten ditut.

**TABERNA • JATETXEA**  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



## Txaloka ludoteka kalera irtengo da Aste Santuan eta Pazko Astean

Aste Santuko eta Pazko Asteko opor egunei begira ekintza bereziak antolatatu ditu Txaloka ludotekak

●**Apirilak 10:** Sormen tailerrak

Foruen plazan, 16:30-19:30

●**Apirilak 11:** Bitxigintza tailerra

Foruen plazan, 16:30-19:30

●**Apirilak 12:** Eskulanak imanekin

Foruen plazan, 16:30-19:30

●**Apirilak 18:** Antzerki eta kareta

tailerra. Plazan, 10:30-13:30

●**Apirilak 19:** Pintzen eskulanak

Foruen plazan, 10:30-13:30.

●**Apirilak 20:** Antxiñako jolasak.

Foruen plazan, 10:30-13:30.

●**Apirilak 21:** Sukaldaritza tailerra

Foruen plazan, 10:30-13:30.

**GAZTELEKUAN** ere ekintza bereziak izango dira: Badminton txapeleketa (ap. 12); Eskulanak (ap. 15 eta 16); Ortu zabala (ap.21); futbol txapelketa (ap.19); Irteera Zumaia-Deba (ap.21)

## Flea Market azoka egingo da maiatzaren 6an

Iazko abenduan egin zen moduan, bigarren eskuko objektuen merkatua egingo da maiatzaren 6an, Foruen plazan (10:00-14:00) Miren Zublediak eta Marije Zubizarretak antolatuta. Edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, bere objektuak (erropa, liburu, musika, jostailu, altzari...) salduz edo trukatzuz. Baina parte hartu nahi dutenei izena ematea eskatzen zaie apirilaren 28a baino lehen [fleamarket.oinati@gmail.com](mailto:fleamarket.oinati@gmail.com) helbidean.



**Bigarren eskuko objektuak saldu edo trukatu nahi dituzten herritarrek izena eman behar dute apirilaren 28a baino lehen**

## Debagoieneko 25. Gastronomía Jardunaldiak, maiatzaren 1erarte

Makomunitateko turismo sailak sustatuta, sasoiko eta bertako produktuz egindako menu bereziak dastatzeko aukera izango dugu eskualdeko bost jabetzetan (Oñatiko *Goiko Benta*, Arrasateko *Hilarion* eta *Santa Ana*, Bergarako *Lasa*, eta Elgetako *Maialde*). Oinarrian bildotsa, pellak eta torradak dituzten degustazio menuak dira, eta denek dute: hasierako mokadutxo, razio erdiko bi lehen plater, razio erdiko bi bigarren edo razio osoko bat, eta bi postreren artean bat aukeran. Gainera, botila erdi txakolin edo ardo ondua eta kafea barne. Informazio gehiago: [www.turismodebagoiena.com](http://www.turismodebagoiena.com)



### SAN MARTIN GUNEAN

Igeltserotza fasean!

Informazioa: **689 420 761**

**egaratur**  
Construcciones | Eraikuntza Lanak

# Bi oñatiar mendi eskiko Euskadiko Kopako podiumean



Aitor Otamendi eta Jon Altube, Altitoy probako igoera batean. Behean, Euskadiko Kopako saria jasotzen

Martxoaren 25ean jokatu zen azken proba puntuagarria, Andres Regil saria, bikoteka, eta bertan lortutako hirugarren postuari esker, mendi eskiko Euskadiko Kopako azken podiumera igo dira Gorka Otamendi (lehenengo) eta Jon Altube (hirugarren) oñatiarrak. Ustekabea izan omen da, ez dutelako lasterketa bat bera ere irabazi, baina, kontua da, erregularrenak izan drela koparako puntuagarriak ziren lau probetan: *Causiat Extreme* (bakarka), *Altitoy* (binaka) *Bandres-Karolo* (bakarka) eta *Andres Régil* (binaka).

Biak ala biak “berri” samarrak dira mendiko eskian. Duela hiru urte hasi ziren trabesiak egiten, eta aurtengo helburua Altitoy lasterketa ahalik eta txukunen egitea zen (bigarren sailkatu ziren ‘B’ ibilbidean). Baina ikusita maila onean ari zirela, animatuz joan dira, Euskadiko Kopako proba guztiak osatu arte. “Oso lehiakorrak gara gu; dortsal bat ikusten dugunean, dena ematen dugu”.

Fisikoki indartsu daude, eta aldapan gora, batez ere, ondo moldatzen dira, baina teknikoki hobetu beharra daukatela aitortu digute; “igoerako giroak egiten, larruak azkarrago aldatzen... Detaile txikiak dira, baina teknika garrantzitsua da mendiko eskian”.

Prestaketa espezifikorik ez dute egiten. Mendi bizikletan ibili eta, tarteka, korrika pittin bat. “Abenduko zubitik aurrera, ahal dan guztietan elurretara joaten gara, gora eta behera, serieak egitera; ahal danean Oñatin bertan (aurten oso gutxitan); bestela, Piriniotan edo Valdezcarayn”.

Pozik daude Euskadiko Kopa irabazita (Gorka) eta hirugarren sailkatuta (Jon). “Ez genuen espero, baina bizitasuna ematen du entrenatzen eta ikasten jarraitzeko”. Datorren urtera begira, Altitoy lasterketako ‘A’ ibilbidea ahalik eta txukunen egitea izango da helburua, eta Euskadiko Kopan ere parte hartuko dute, “baina garbi izanda, mendian disfrutatzea dela inportanteena”.

Kontzeju | 26 | peñik



Gorka Otamendi, lehenengo, eta Jon Altube, hirugarren, sailkatu dira Euskadiko Kopan

## MENDIZABAL ETA OTXOA ERE PODIUMEAN

Otamendi eta Altubez gain, beste oñatiar batzuk ere nabarmendu dira mendi eskiko probetan. Iñaki Mendizabal da horietako bat. Martxoaren 4-5ean jokatu zen *Bandrés-Karolo* memorialean (Euskadiko txapelketa), azkarrena izan zen promesa mailako kronoigoeran, eta bigarren sailkatu zen lineako proban. Bestalde, Aitor Otxoa oñatiarra bigarren sailkatu zen *Altitoy* probako beteranoen mailan, Lander Alvarez donostiarrarekin bikotea osatuz.



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia



**PAKITA**  
Altzariak

Berezaio Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIERA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

## IRAZOLA

### Okindegia

Ostinal. asteburu  
eta jai egunetan  
baserriko agio  
eguneko labean egita



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

## APIRILAREN 23AN JOKATUKO DA ALOÑAKO XIII. IGOERA



Iaz amaiera ikusgarria izan zuen Aloñako Igoerak. Esprintean irabazi zion Imanol Goñik Walter Becerrari. Aurten, tamalez, Aloñako Igoera lau aldiz irabazi duen Becerrak ezin izango du parte hartu, gaixo dagoelako. Arantza atera nahi zuen, baina... Dena den, konpetitzen ez bada ere, Oñatin egogo da Walter Becerra, asko maite baitu Aloñako Igoera.

Imanol Goñi lekeitiarra, iazko irabazlea, izango da aurten ere faborito nagusia, baina antolatzaileek aurreratu digutenez, Canfranc-etik datorren Raul Criado ere faboritoen artean sartu behar da. Emakumezkoetan, Oihana Kortazarrek, iazko irabazleak, seguruenez ezin izango du parte hartu, eta gainerako lehiakideen artean ez dago, izenez behintzat, nabarmentzen den inor. Beraz, irekia egongo da lasterketa.

### OÑATIARREN ARTEKO LEHIA

Kanpokoak bakarrik ez. Oñatiarren artean ere maila handiko korrikalariak parte hartuko dute Aloñako igoran. Iaz podiu-mera igo zen Iban Letamendi, lokin Garai, Axier Alonso, Beñat Madariaga, Iñaki Arriaran... Denak ere hamarren barruan ibiltzeko gai dira eta, beraz, lehia polita ikusiko dugu herritarren artean. Emakumezkoetan, Maite Zabaleta eta Saioa Arkonda dira faboritoak.

### ALOÑA TXIKIA

Goizeko 9etan hasiko da Aloñako Igoera, eta 11ak aldera iritsiko dira lehenengoak helmugara. Tarte horretan, gazteto-entzako 'Aloña Txikia' lasterketa egingo da Foruen enparantza eta Dukieneko parkearen artean.

## MENDI IRTEERA / Apirilak 9 Kantauri mendikatea



Aloña Mendiko Mendi sailak hil honetarako antolatu duen irteera Kantauri mendikatean egingo da, Arabak, Errioxak eta Nafarroak bat egiten duten txokoan. Bernedon abiatuta, La Población (1244m.) mendia igo eta Marañonen amaituko da. Luzerra: 15km; Desnibela: 750m. Irteera, goizeko 8etan Korreosen. Izena emateko azken eguna: apirilak 6. Prezioa: 10€.



**PILOTA.** Xabi Aiastui eta Markel Txintxurretan Aloña Mendiko pilotariak Gipuzkoako Udaberri Txapelketa irabazi zute Gazteen 2. mailan.



**TXIRRINDULARITZA.** Aloña Mendi-Ulma taldeko Julen Oterok Uzarragako XLIII. Igoera irabazi du junior mailan. Bestalde, kadete mailan Ander Blazquez 2. sailkatu da Azpeitia eta Zestoako sarietan, eta 4. Zarautzen.

## Uda Kirol Kanpainarako izen-ematea

Apirilaren 7an amaitzen da, udal Kirol zerbitzuek antolatuta uztailean eta abuztuan zehar egingo den Udako Kirol Kanpainaren izena emateko epea. Informazio gehiago, kiroldegian.

### KIROL BEGIRALEAK KONTRATATZEKO DEIALDIA

Uda Kirol kanpainarako begiraleak kontratatzeke deialdia egin du udalak. Apirilaren 7a da izena emateko azken eguna. Udalaren webgunean daude ikusgai deialdiaren oinarriak.

## OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 732 733 712  
argitagarbi@hotmail.com



## Almaraz

inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444  
www.almaraz.info

### Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezermen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

# Oñati, trikitixaren hiriburu

## Debagoieneko XIII. Trikitixa Eguna ospatuko da apirilaren 29an



### Eskualde osoko 350 trikitilari eta pandero-jole batuko dira Oñatin

Duela 9 urte Oñatin ospatu zen  
Trikitixa Eguneako irudia

Debagoieneko trikitilarien jaia hartuko du Oñatik hilaren 29an. Urtero ospatzen den festa da, txandaka, bailarako herrietan eta Soraluzen. Arrasaten egin zen aurreneko aldiz, 2005ean, eta Oñatik 2008an antolatu zuen orain hurrengoa. Giro aparta bizi izan zen orduko hartan herrian, eta aurten ere halaxe izatea nahi dute antolatzaileek.

José de Azpiazu Musika Eskola eta Lizargarate Trikitizale Elkarte ari dira antolakuntza lanetan, eta egitarau bete-betea prestatu dute. Gai desberdinen inguruko bost tailer egingo dituzte egunari hasiera emateko: 'Hanka ta buru' (panderoari buruzko tailerra Lutxurdixoren eskutik); 'Trikitixa bultzatuz' (Luis Astiazaran); 'Sormena. Konposatzen hasteko pausoak' (Harkaitz Allur); 'Soinu txikia, soinu handiaren betaurrekoetatik' (Aitor Furundarena); 'Txikientzako musika saioa' (Ines Osinaga).

Hortik aurrera, trikiti doinuak izango dira nagusi herriko kale eta txoko ezberdinetan; kalejirak, kontzertuak... Egun osoko festa izango da (ikus egitaraua). 350 bat trikitilari eta pandero-jole batuko dira Oñatin.

### PARTE HARTZEKO DEIA HERRITARREI

Trikitixari buruzko ezagutzak partekatu, trikitilarien arteko harremanak sendotu, eta egun eder bat igarotzea da festa honen helburua, trikiti doinuez gozatuz beti ere. Eta, ildo horretan, antolatzaileek dei egiten diete herritarrei antolatutako ekitaldietan parte hartzera. 2008an Oñatin ospatu zen Trikitixa Egunaren ostean sekulako gorakada bizi izan zuen trikitixak herrian; soinu eta pandero-ikasleen kopuruak gora egin zuen, eta talde ezberdinak sortu ziren, tartean Lizargarate Trikitizale elkarte, eta erromeria giroko beste talde batzuk ere bai. Azkenaldian, baina, oparoaldi hori apalduz doala ematen du, eta, beraz, apirilaren 29ko jaia aukera ona izan daiteke hain geurea dugun instrumento hau berriz ere hauspotzeko.

### EGITARAUA



- 10:00** Ongi etorria unibertsitate zaharreko plazan
- 10:30** Formazio tailerrak
- 11:30** Hamaiketako Santa Marina plazan
- 12:00** Kalejira herriko kaleetan zehar
- 13:00** Trikiti Eskolen saioa unibertsitateko plazan
- 14:30** Bazkaria kiroldegian
- 17:00** Debagoieneko trikiti taldeen kontzertuak unibertsitate plazan
- 19:30** Txapito Guzman eta Ibarako Langostiniek elektrotzarangapoteoa herriko kaleetan
- 22:30** Kontzertuak eMePebo5t eta Los Zopilotes Txirriaos taldeekin. Unibertsitate plazan.

### BAZKARIRAKO TXARTELAK

Bazkarirako txartelak Arrano tabernan edo *trikibazkaria@gmail.com* helbidean eskura daitezke apirilaren 9ra arte.

**ETXIAN**  
Oñatiko inbiliaria berria  
Donostian etxea erosteko ere aukera onenaren informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi al duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)  
Etxian 

**COINBROKER**  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 - 20560 Oñati

☎ 943 089 806  [oinati@coinbroker.eus](mailto:oinati@coinbroker.eus)  
 [www.gipuzkoa.coinbroker.eus](http://www.gipuzkoa.coinbroker.eus)

# BOOKTUBERBOOM lehiaketa

14-18 URTE ARTEKO GAZTEEI ZUZENDUTA

Euskadiko Liburutegi Zerbitzuek eta Galtzagorri Elkarteak BOOKTUBERBOOM lehiaketa antolatuta dute 14-18 urte arteko gazteei zuzenduta. Euskarazko liburu bat irakurri eta horri buruzko *booktube* bat sortu behar dute partehartzaileek.

*Book* (liburua) eta *tube* (*Youtube*) lotzen dituen bideoa da *booktube*-a; hau da, liburu bat irakurri ondoren, nork bere buruari grabatu eta *Youtube*-ra igotako bideoa, irakurritako liburuari buruzko gomendioa, kritika edo iruzkina eginez.

Beste herrialde batzuetan arrakasta handia lortzen ari diren *booktuber* sareak sortzea da lehiaketaren helburua, eta, bide batez, irakurtzeko zaletasuna sustatzea gazteen artean ikus-entzuzkoen bidez.

Lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 24an amaituko da (<http://booktuberboom.wordpress.com> blogean kontsulta daitezke oinarriak). Sari mundialak daude jokoan

## BOOKTUBER KEDADAK

Lehiaketaren harira *booktuber* kedadak ere antolatuko dira. Horieta bat Arrasateko udal liburutegian izango da, maiatzaren 5ean. *Booktube* bat zer den eta nola egiten den ikusteko aukera egongo da bertan, lagunarte giroan.



**Grabatu bideo bat gustuko duzun liburu bati buruz, eta eskegi Youtuben**

## Ipuin kontaketa saioa / apirilak 27

3-5 URTEKO HAURENTZAT

Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, 3-5 urte arteko haurrei zuzendutako 'Konpo' ipuin kontaketa saioa eskainiko du Rakel Imazek apirilaren 27an, Haur liburutegian (18:00). Ohi bezala, astebete lehenago hasiko dira gonbidapenak banatzen liburutegian bertan



## Nazioarteko Liburuaren Eguna

Urtero bezala, liburuaren eta haur liburuaren nazioarteko egunak ospatzen dira apirilean. Hori dela eta hainbat sorpresa egongo dira hilean zehar udal liburutegian. Liburuak eta kultur ekitaldietarako sarrerak oparituak dituzte.

## HERRIARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA

**Txinparta-1 taldea Final laurdenetara sailkatu da eta Araotzen izango du saioetako bat apirilaren 9an**



Oñatiko bertso eskolako Txinparta-1 taldea Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako final laurdenetarako sailkatu da eta Karidadeko Benta eta Ereñotzu taldeak izango ditu aurkari fase honetan. Joan den asteburuan (martxoak 31) izan zuen fase honetako lehen saioa, Ereñotzun, eta apirilaren 9an izango du bigarrena, Araotzen, Karidadeko Benta (Asteasu-Zizurkil) taldearen aurka. Bertso-bazkari giroan egingo da Araotzeko saioa, auzoko Saloian. Txartelak (20€) [txinpartabertsoeskola@gmail.com](mailto:txinpartabertsoeskola@gmail.com) helbidean edo Txokolateixan eskura daitezke.

Egin beharreko ariketa puntuagarriak hauek dira: Ofizioa Iparragirren; Ofizioa 8ko txikian; Ofizioa 10eko txikian; Bakarka gaia emanda; Puntuka; Taldeka, pertsonaia emanda (1 asmatzen, 2 pistak ematen); Taldeka, egoera proposatuta, koplatan.

not+  
vello

Argi pultsatu bidezko  
fotodepilazioa  
(IPL)  
Depilazio ezinikorteko egutemak  
maldemakia berriraketa

FOTODEPILAZIOA OPARI TXARTELAK  
IPL GAZTETZEA AZALEKO GARBIKETAK

Jerral gaitzazu  
**facebook**

Olakua 1

943716713

✉ [onati@nomasvello.com](mailto:onati@nomasvello.com)

www.nomasvello.es

## AGENDA

# 04

## APIRILA



### LIBURUAK

> **APIRILAK 6 / 19:00**

'LAURA ESATEN ZIOTEN'

Miren Odriozolaren bizitza eta borrokak azalduz, Leire Iburguren idatzitako liburuaren aurkezpena. *Gaztetxean.*

### DOKUMENTALA

> **APIRILAK 7 / 22:00**

'BatZuk'

Korrika girotzeko antolatu den egitarauaren baitan, euskaldun izateko milaka modu daudela erakusten duen dokumentala. *Gaztetxean.*

### BAKARRIZKETA

> **APIRILAK 7 / 22:00**

'TXIKI'ren UMOREA



Korrika girotzeko antolatu den egitarauaren baitan, Ion Martinez (Donostia, 1980) 'Txiki'ren umorezko bakarrizketa saioa. *Gaztetxean.*

### + INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



## MUSIKA

> **APIRILAK 9 / 19:30**

GANBARA KANTU ESKOLA

Ganbara abesbatzaren kantu eskolako hiru hileko kontzertua. Santa Ana aretoa.

> **APIRILAK 21 / 22:00**

MARKEZ IRAIZOZ & GATOM + talde sorpresa



Rap doinuak nagusituko dira *Gaztetxean*, Markez Iraizoz (Kodigo Nortena aritutakoa) Gatom bermeotarra eta beste taldekin *Gaztetxean.*

> **APIRILAK 29 / 18:00**

SOTOROCK JAIALDIA

Punk jaialdia Antixenako so-toan, 'Zuen Azkena', 'Utopia' eta 'Nos la suda' taldeen eskutik. Azken hauek kontzertu honetarako elkartu dira bost urte eta gero. *Gaztetxean.*

## KONTZERTUA

### 'Los Fastidios'

> **APIRILAK 22**

*Gaztelekuan, 22:00*

Italian sortutako taldea da Los Fastidios, nahiz eta taldekideetako bat bakarrik den italiarra. Oi!, punk eta ska estiloko musika egiten dute. Gai sozialak jorratzen dituzte abestietan. Italiaraz dira kantarik gehienak, baina ingelesez eta frantsesez ere abesten dute. Italiarrekin batera, **Kaos Urbano** (Madrid) eta **John Dealer and the Coconuts** (Legazpi) punk taldeak ariko dira, Sarrera: 10€ (aurrez 8€).

### HITZALDIA

> **APIRILAK 18 / 17:30**

'GORPUTZAREN HIZKUNTZA EZKUTUA'

Pake Leku elkarteak antolatuta, Karmele Gurrutxaga psikologoaren hitzaldia. Gaia: Goputzaren hizkuntza ezkutua (*El lenguaje secreto del cuerpo*). Sarrera, doan. Pake Lekun.

### IKUSKIZUNAK

> **APIRILAK 22 / 22:00**

HITUZKISUNA 2.0

Herriko hainbat artista normala dena zalantzan jartzen eta eskenatokian zalantza horiek antzeztzen, abesten, musikatzen, bakoitzak dakiena egiten. *Gaztetxean.*

## BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN  
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



## UDALEKUAK

### > UZTAILEAN

UDALEKUAK POTTOKALEKUN Gaztetxoei zuzendutako udalekuak antolatuko ditu aurten ere Pottokaleku zalditegiak. Hiru txanda aukeran: uztailak 2-7; uztailak 9-14; eta uztailak 16-21. Egunerokoa (10:00-19:00) 180€ txandako; aste osoko barnetegia, 250€ txandako. Informazioa eta izen-ematea: 670274461 (Jon)

## JARDUNALDIAK

### > APirilak 13-14-15

#### GAZTE AKELARREA

Ernai eta Aitzina gazte antolakundeek antolatutako ekimenera joateko deia egiten du Oñatiko Gazte Asanbladak. Arrano tabernan eskura daitezke txartelak. (<http://gazteakelarrea.info>)

## DOKUMENTALA 'NOSOTRAS. Mujeres de Euskalduna'

### > MAIATZAK 2

**Kultur etxean, 19:00**

Udaleko Berdintasun sailaren eskutik, Larraitx Zuazoren 'Nosotras. Mujeres de Euskalduna' dokumentala ikusteko aukera izango dugu maiatzaren 2an. Euskaldunako Ontziolen itxieraren aurka borroka egiteko, Euskaldunako Emakumeen Asanbladan parte hartu zuten emakumeen lekukotza, eta borroka haren balio sinboliko eta politikoa erakusten du lanak.

## LIBURUTEGIKO BERRIENAK



**Haur liburua**

"Benicio y el prodigioso.."



**Liburua**

"Biblia"



**Liburua**

"La selección natural"



**Liburua**

"El huerto con flores"



**Liburua**

"Anatomía y estiramientos.."



**DVD**

"Bioquímica"

## MERKATU TXIKIA

> **Etxebizitza** alokagai Olakua auzoan. Interesatuek deitu: 679 983 873.

**Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI**

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: [kontzejupetik@onati.eus](mailto:kontzejupetik@onati.eus)

## GUARDIAKO FARMAZIAK



**ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**

Apirilak 12, 13, 14, 15, 16, 17, 21, 22 eta 23, eta maiatzak 2.

**IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**

Apirilak 5, 6, 24 eta 25, eta maiatzak 3 eta 4.

**GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**

Apirilak 7, 8, 9, 18, 26 eta 27, eta maiatzak 5, 6 eta 7.

**JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**

Apirilak 10, 11, 19, 20, 28, 29 eta 30, eta maiatzak 1.

# ARG! 2017 Oñatiko argazki Festibala



Erakusketak, ikus-entzunezkoak, tailerrak, filmak... bete-betea dator 'ARG!-2017', Ilunpetan taldeak bi urtetik behin antolatzen duen argazki festibalaren 3. edizioa.

Erakusketa potente batekin (Patricia Bofill-en 'Más allá de la forma') emango zaio hasiera festibalarari. Izan ere, Arantzazu Gaur Fundazioarekin elkarlanean, estatu mailako argazkilarien artean egindako deialdira aurkeztu diren 182 proposamenen artean aukeratua izan baita. Gandiaga Topagunean egongo da ikusgai apirilaren 28tik maiatzaren 28ra. Beste lau erakusketa ere programatu dituzte: Elli Garmendia eta Ekaitz Zubimendirenak kultur etxean; Bernat Alberdirenara Antixena parkean eta gaztetxean; Euskal Argazkilarien Federazioak antolatzen duen Argizaiola lehiaketako finalistak Txandako dendetako erakuslehoietan; eta gure herria nola aldatu den erakusten duen 'Ispiluak' argazki erakusketa Sancti Spiritus unibertsitatean eta herriko txoko ezberdinetan.

Erakusketez gain, argazki-liburuen irakurraldi publikoa (BookJockey), argazkia, poesia, musika eta testua uztartzen dituen 'Hysterion 3.0' ikus-entzunezkoa, eta argazki-liburuzaleen (Photobook Club) elkarlearen bilera egingo da Oñatin. Egitarau guztiz zehaztu barik dago oraindik, baina adi egon, argazkilaritzaz gozatzeko aukera egongo baita datozen asteetan.

# Kale Zaharra (II)

> Jerardo Elortza eta  
Xabier Zelaia

**A**urreko alean adierazi genuen legez, aspaldikoa dugu Kale Zaharra. Izenaren jabe da, benetan. Hainbeste gizalditan milaka bizilagun eta dozenaka denda, taberna, tailer nahiz lantegi eduki zituen; baina baita makinatxo bat kale-baserri ere. Biztanleen artean denetarik zegoen: kargudunak, elizgizonak, langileak, artisauek, dendariak edota nekazariak. Auzoan jaio edo bizi izan eta, aldez edo moldez, herriko historian nabarmendu ziren pertsona banaka batzuk gogoratuko dizkizuegu.

## Pertsonaia aipagarri batzuk

- **Francisco Antonio Palacios Lezeta** frantziskotarra (1727-1804), idazle eta sermolari ospetsua, Euskal Herri osoan aritu zen misioak euskaraz nahiz erdaraz ematen. Bere sermoietariko asko Zarauzko frantziskotarren komentuan gordetzen dira eskuizkribuetan. Sermoigintzarako batetik eta bestetik deitzen ziotelako, Padre Caminos goitizena ezarri zion bere buruari.

- **Anselmo Gomendio Castillobeitia** (1760-1841), Espainiako itsas armadako ofiziala, gudu eta kanpaina askotan parte hartu zuen: Argel, Trafalgar, Mexicon eta abarretan. Trafalgar-eko itsas gudu ospetsuan atxilotu egin zuten eta Gibraltar eta Portsmouth-eko espetxetan eduki zuten. Gerora, Donostiako eta Pasaiaiko komandante ere izan zen.

- **Esteban Gomendio Castillobeitia** (1763-18..), aurrekoaren anaia eta hura bezala itsas armadako ofiziala Cadiz aldean; 1813an, Indagadora korbetaren komandante zela, Kolonbiako Cartagenara joan behar izan zuen, piraten menpe zegoen hiria libratzera, baina preso hartu zuten, urtebetera ihes egitea lortuz. Harrezkero Oñatin bizi izan zen.

- **Jose Francisco Alzaa Gomendio** (1794-1835), militar profesionala izan ez arren, hainbat gatazketan parte hartu zuen: Napoleonen aurkako gerran hasi eta I. karlistaldira arte; Oñatin boluntario errealisten komandante genuen, eta gerraren hasieran Karlos V.aren alde altxatu zen; Zumalakarregiren adiskide mina, Otxandioko guduan hil zen, Ormaiztegiko jenerala baino lehentxoago.

- **Joaquin Julian Alzaa Gomendio** (1798-1848), aurrekoaren anaia gazteagoa; doktorea eta irakaslea Oñatiko unibertsitatean; karlisten gerran gogor aritu zen hainbat tokitan ofizial gisa, Oriamendin besteak beste. Bergarako besarkadaren ondoren, atzerri jo zuen; 1848an, gogoz kontra, karlisten beste altxamendu baten buru izatea tokatu zitzaion; atxilotu eta Zaldibian fusilatu zuten.

- **Blas Kortabarria Ramila** (1812-1855), urte hartako kolera-izurritean nahikoa gazterik hil bazen ere, ikasketak burutu ondoren, hainbat lanbide izan zituen. Gaztaroan Parisera joa-



Argazkia: Udal Artxiboa (Arzuaga funtsa).

Kale Zaharra duela 50 urte.

nik, Dionisio Aguado gitarra-jolearen ikasle izan omen zen. Oñatira itzulita, frantsesa irakatsi zuen institutuan, Elkarte Filarmonikoko zuzendaria izan zen eta udaleko idazkaria ere bai. Gitarrarako musika-lan batzuk idatzi zituen.

- **Juan Carlos Alzaa Larrañaga** (1821-1896), Jose Franciscoren semea. XIX. mendeko Oñatiko alkaterik ospetsuena; garai hartan alkateak urtebeterako aukeratzen ziren ia beti. J. C. Alzaa, ordea, bost urte jarraian egon zen postu horretan. Bere alkate-tza-denboran obra asko egin ziren herrian, ur-horniketeta berria eta iturri monumental dotoreak, besteren artean.

- **Damian Lizaure Lasa** arkitektoa (1885-1956), XX. mendearen lehen erdian makina bat etxe eraikitzeko edo eraberritzeko lanak zuzendu zituen jaioterrian eta beste leku batzuetan. Oñati guztian, kalean naiz auzoetan, ikus daitezke haren aztarnak; baita Kale Zaharrean ere. Istripu latzean hil zen Abadiñon bere bi alaba eta txoferrarekin batera, trenak taxia harrapatu zue-nean.

- **Felipe Jausoro Uriarte** (1898-1986), euskaltzale porrokatua, euskara irakaslea frankismo garaiko urte zailetan. Gerra aurretik, Uribarri auzoko eskolan, gure hizkuntzan irakatsi zuen lehenengotarikoa izan zen, eragozpen asko gaindituz. Gerratean iparraldera alde eginda, Gurs-eko esparruan egon zen hainbat hilabetez konfinaturik. Herriko kronikak bidali zituen euskaraz gerra aurreko nahiz osteko aldizkarietara.



- **Felisa Enparantza Galdos** (1911-1996), emakume saiatur Oñatiko kontu zaharrak jasotzen eta ezagutarazten. Artikuluak argitaratu zituen Oñatiko aldizkarietan, eta inguruko irratietan hemengo albisteak zabaldu. Beti euskaraz. Bere mertzeria-denda liburuak eta egunkariak ere saltzen zituen azken aldera.

- **Joxe Otorala Galdos** (1926-2005), herriko hainbat talde eta ekimenetan parte hartu zuen: parrokiako koruan, Irrintzi zortzikotean, ikastolaren sorreran, batzokian, edota artzain-txakuraren txapelketen antolamenduan, besteak beste. Antonino Ibarrendoren hainbat abestiri euskarazko letrak jarri zizkion eta Oñatiko euskararen azterketarako ekarpen interesgarriak egin zituen.

- **Iñaki Zumalde Romero** idazleak (1926-2011) lan ugari eta garrantzitsuak utzi zizkigun. Liburu eta aldizkari askotan argitaratu zituen bere ikerlanak eta artikuluak. Oñati eta Euskal Herriari buruzko gaiak jorratu zituen, batez ere. Oinarrizko erreferentzia izaten jarraitzen du gure herriko historia aztertzerako orduan. Literaturaren inguruko kritika interesgarriak ere idatzi zituen.

### Era askotako dendariak

Ezinezkoa zaigu hemen guztien aipamena egitea eta, horregatik, azken ehun eta piku urteetan egondako batzuk soilki izendatuko ditugu. Egungo Kale Zaharrekoak ez ezik, alboetako kaltetakoak ere sartu dira. Badakigu hutsuneak eta akatsak aurkituko dituzuela, baina lan sakonago baten aurrerapena izan dadila.

### Dendak

#### Janariak:

- **Denetik:** Aitzekua; Sabasena; Mantxola (supermerkatu txikia); San Migel kooperatiba (1925an sortua, goikoa baino garrantzitsuagoa hasieran); Teresa Zubia; Rakel Urrutxi; eta Antoni larza.
- **Okindegiak:** Illaramendi; Egañena (Kale Barriko okindegiaren saltokia); Gorrotxategi,(Ogi Berri orain).
- **Harategiak:** Txaketuena; Patrirena; Juan Mari Garai.
- **Arrandegiak:** Narzisa Igartua; Karmen Gutierrez eta alabak; Kresala. Auzokoak, baina saltokia plazan zutenak: Gregori eta Prexen Madinabeitia; Lukas eta Axun Igartua.
- **Fruta-saltzaileak:** Modesto Elgero; Illaramendi; Ama Lur; eta Oñati fruta-denda.

- **Kafe-denda:** Biain anai-arrebak (Iraban).

**Bazarra:** Lasarena, XIX. mendetik aurrera; denda berean Arrazolatarrak aritu ziren gerra aurretik; Rosita Arregi eta Leonardo Urrutia gerra ostean.

**Zapata-saltzaileak:** Klarita Biain eta bere alaba Maria Angeles Lizarralde; eta Olaldetarrak (Sillero), kale honetako bi leku desberdinetan.

**Erloju-dendak:** Dionisio Mugartza; eta Iñazio Illaramendi.

**Argazkilariak:** Dionisio Mugartza-Patxi Elortza.

**Drogeriak:** Tavira (Untzilla); eta Urrutia.

**Aldizkariak eta liburuak:** Haritza.

**Opari-dendak:** Juan Arregi, Arrillagarena; eta Rosa Igartua, Sua.

**Bitxitegiak:** Mugartza; eta Sua.

**Gozokiak:** Mizke.

**Altzariak:** Idigoras (Aranburutarrak).

**Joskinak:** askoren artean bi jostun klasiko nabarmenduko ditugu: Petra Igarzabal (Zubillagako Arotzenako alaba); eta Mikela Mujika (Mikelaerrero).

**Sastreak:** Juan Igartua; eta Higinio Iriarte, txistulari eta sastre.

**Mertzeriak:** Paula Guridi; Felisa Enparantza; eta Mikelaerreron eta ondorengoak.

**Tintoreria:** Margola.

**Etxetresna elektrikoak:** Benito Aiausti; Bizente Ormazabal; eta Leir (Lete-Irizar).

**Industria-tresnak:** Femur.

\*\*\*\*\*

Leku faltaz, ez dugu sartzerik izan zenbaki honetan Kale Zaharreko beste hainbat merkatari, artisau eta lantegi. Datorren hilean jarraituko dugu.





### (\**) Futbolera jokatu*ko dogu

## Gertaeria

### ASKAZUBIKO MUTILLARENA



Gaurko istorio hau orain dala ehun eta zazpi urte pasau zan, 1910eko apirillaren 1ian, hain justu be. Sasue hartako neguak orainguen aldian luziaguak eta latzaguak izaten ziran hamen, duda barik. Esan biharrrik eztago, orduko edurtiak ez eukailla zerikusirik gaur egunekuakin. Aloña alde hori danori be, esaterako, zuri egoten zan hiru-lau bat hillabetian eta kaleraño be sarrittan zuriketan eben, gaztien pozgarri eta zaharren amorragarri.

Ba, halaxe, urte hartako udabarriko -baiña eguraldiz artian neguko-astegun buruzuri batian Julian Lizaur Askazubiko semia Zumarraga aldera abixau zan Eltzikortako semiarekin

batera, billotsak saltzera hango karnazerixa batera. Kaleko lanak egin zittuainian, etxerako bidia hartu euen barriz be, baiña Eltzikortakuak Antzuolatik etortia pentsau eben, eta Julianek, barriz, fandako bidetik, hau da, Lakiolatik gora Arrolamendira, handik behera Lizargaratera, gero Marizelaietara (Maixeletara), eta, azkenik, Askazubira.

Egun hartan, esaten daueiñez, edur larregi be ez eguen, hiru-lau bat zentimetroko edur-azaltxo bat, besterik ez; haiziak, baiña, gogor joten ei eben, edur-bisutza jasuz. Jualianek Zumarragatik etxera etorteko bi gauza ekuan kontra: aldapa latza, batetik, eta edur-bisutza, bestetik, eta hirugarren bat be bai, egoera horreittan askoz hobia eztana: lagun egitteko inor be ez. Haizia zala-eta, astuak lagundu biharrian, atzera eragitten ei otsan eta mutilla bere pausua ondo emun eziñian etorren, esandako moduan haizia eta astua bixak kontra zittuela. Une baten, hemezorti urteko mutil gaztia, sasuekua eta mendixan zailddutakua, meko egitten hasi zan. Edur-bisutzak ziharo itsutu eben, ez ekixen oso garbi nun eguen, unetik unera hotziketan eta makalketan xoiala igarten otsan, eta larriketan, jakiña! Eta unetxo baten belaunikatu bihar izan zan arnasia hartuko baeben. Astua, ikararik egin barik, haren onduan geratu zan.

Edurretan holaxe galdu zan Askazubiko mutilla. Hurrengo egunian, etxeuak mutilla agiri etzala ikusi euenian, haren billa mobiu ziran eta hantxe topau euen Lakiolako alkartia baiño goratxuago, Legazpiko partian, bide kontran hilleda, astua onduan ebela.

Orainddiok be hantxe dago Julianen izenian jarritako hillarria. Hauxe dixo:

1910 'Ko APIRILLAREN (*fetxia ezabauta*) ILTZAN EMEN ELUR TARTIAN LIZAU'R TAR JULIAN 18 URTE ETA 8 ILLABETEKOA !GOIAN BEGO;

Gorantziak eta eskerrak Askazubiko Bixenta Aiastui barriemaillari.

## Billatu berba honein sinonimuak

- |                       |                                 |
|-----------------------|---------------------------------|
| 1. Edur-gixiak        | A. Trumoia                      |
| 2. Horiaatu           | B. Tximista                     |
| 3. Edur-bisutza       | C. Elur-gilbak                  |
| 4. Eramaittua         | D. Trumoiak jo                  |
| 5. Euri-toketadia     | E. Lainotu                      |
| 6. Haize-zurrunbillua | F. Goian-behean bota            |
| 7. Horeixak jo        | G. Euri zaparrada handia        |
| 8. Idolaz bota        | H. Haiziak jasotzen duen elurra |
| 9. Justuixa           | I. Erauntsia                    |
| 10. Oiñaztua          | J. Zirimola                     |

**Zertan jokatu** esaten da eta ez zertara **jokatu**. Baiña goguan izan jokatu aditzaren ordez **egin, ibilli, jardun ...** aditzak be bardin-bardin ebali leikiela

- **Futbolian** jokatu
- **Pelotan** egingo dogu?
- **Musian** dabiltz / **Musian** dihardue
- Zeiñek egin gura dau **partxisian**?
- **Txorro-morron** ibilliko gara? (*Txorro-morro-piku-taio-ken*)

Jokuari izena ekintza errepikakorren batek emuten xaonian **-ka** atzizkixa ebali izan da:

- **Ikusi-makusika** ibilli
- **Pote-poteka** ibilli
- **Gorde-gordeka** ibilli



## Oñatiko ikastoliaren hasierako umiak

**B**adakizue honezkero, batian eta bestian sarritan gogoratu doskuelako, aurten Oñatiko ikastoliak berrogeta hamar urte beteten dittuala. Halako ikastetxe bat gizaldi erdira ailegaittia ezta bromia. Izan be, tarte luze horretan, momentu onekin batera, zenbat gorabehera larri ez ete dau pasau? Dana dala, urtiak fan eta urtiak etorri, aurrera doia herriko neskatilla-mutiko askoren mesederako.

Urteurrenaren ospakizun nagusixenak udazken inguruan izango diran arren, hil honen akabera aldera, besteren artian, ikastolako antxiñako ikaslien bazkarixa antolaketakotan dira. Gaurko fotografia honeittan aspalditxoko haurrak agerketan dira, hau da, orduan San Migel izena eukan ikastolan ebiltzen ikasliak. Lehenengotako promoziñotakuak.

Sasue zail hareittan, 1967-1968 ikasturtian eta hurrenguetan, leku desbardiñetan emun bihar izan zittuain eskolak: lehenengo, Kale Zaharreko San Migel kooperatiba gaiñian; taldiak ugarittu ahala, Lizaur kaliaren hasierako etxepe bateko bi gela be eba-li ziran; eta, biharrak eragindda, laister pasau ziran hurrian zan agustiñuen komentura, aurreko eskola bixak baiño ikasleku nasai-xagora, baiña igogaillu bariko hirugarren pisu batian eguena.

Ba, argazki pare honetan agiri diran neskatilla-mutikuak laterandarren seminarixua izandako goixeneko pisu horretan ziharduain ikasten. Kurtsua 1972-1973kua izan leike. Batian, lurrian jarritta eta korruan dagozen umetxuak, bi borobillen bittartez, kontaitten ikasteko ariketia egitten diharduela emuten dau. Guk banaka bat baiño ezagutu eztogunez, zuen esku izten dogu zeregin hori; ia suerte gehixago dakozen.

Beste fotografixako ikasliak nagusitxuaguak dira, zazpi-zortzi urtekuak-edo. Pozik ikusten dittugu ikasgela barruan, euren alaittasuna dantza moduko batian kanporatuaz. Danak ezpadira be, batzuk behintzat ezagunak egin xaku: esate baterako, Ines Maiztegi; Maite Elgero; Garbiñe Garai; Belen Guridi; Joxe Mari Urtzelai; Marijo Anduaga; Jabi Ordorika (?); Patxi Izura; edota Mikel Iturrospe.

J. E.

Fotografixak Euxebi Osak eskuratutatuak dira. Argibidiak, berriz, Euxebi berari eta Garbiñe Garairi zor dostegu. Milla esker!

# irureta

ALTZARIAK DEKORAZIOA

## IXTE-LIKIDAZIOA

Altzariak, lanparak, alfonbrak, koadroak, osagarriak...

Alfonbra, lanpara  
eta kuadroetan  
%60 eta %70 arteko  
deskontuak



Logela eta altzari  
klasikoetan  
aukera paregabea



60 %



70 %

Azpeitia  
Loiola Auzoa 21 943 814600  
Donostia  
Ramón M<sup>o</sup> Lili 9 943 459814



50 %



# AZKEN EGUNAK APIRILAREN 29 ARTE

GURE WEB ORRIALDEAN KONTSULTATU

[www.iruretamuebles.com](http://www.iruretamuebles.com)